

ttipi-ttapa



ERAIKUNTZA gehigarria / 27



IKASLEAK GREBARAKO PREST

Indarra izan eta eman gure hezkuntzari lelopean ikasleei grebarako deia egin diete azaroaren 28rako. Hezkuntzaren eremuan ikasleek jasaten dituzten «zapalkuntzak» salatzen eta euskal hezkuntza sistema propioa aldarrikatzeko egin dute deialdia. / 10

Feria giroa nagusi azaroan

Ortziralean Doneztebeko feriak ospatuko dituzte; larunbatean Leitizan, azaroaren 20ean eta 21ean Lesakan eta 30ean Goizuetan.

SINADURAK



ZOKKETA / 84

«Ez dakit Irujo edo Aimar bezalakorik aterako den baina pilotari onak badira eta izanen dira»

Ttikitako ametsa egia bihurtuta, profesioletara salto egin du Iker Salaberria Orbegozo goizuetarrak. Asperekin bi urtetarako kontratua sinatu du. / 8



AZAROAK 25

Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna



Bortzirietako

Hiri-Hondakinen Mankomunitatea

JAKINARAZPENA

2019ko bigarren urterdiko zabor bilketa eta tratamendu zerbitzuetako tasak kobratuko direla, ondoren seinalatzen den bezalaxe:

ORDAINTZEKO ERA


Ordainketak banketxeetan helbideratuta ez dituztenak: Abisuan agertzen den edozein kontutan eginen da ordainketa nahi den banketxetik, abisu hirukoiztua aurkeztuz.

Ordainketak banketxeetan helbideratuta dituztenak: Kontutik zuzenean kobratuko zaie.

ORDAINTZEKO EPEA

- 2019ko azaroaren 30ean bukatuko da.
- Ordaintzen ez bada, epea 2019ko abenduaren 31ra arte luzatuko da. Luzapen horri dagokion interesa aplikatu ahal izango da.
- Aipatutako epea pasatu ondoren, premiamenduzko exekuzio bidez %20ko errekarguarekin kobratuko da.

Etxalar, 2019ko urriaren 1a.
Lehendakaria,
Miguel Maria Irigoien Sanzberro





NIRE TXANDA

MAITE BIDARTE SOTA

«Pako hasi berotzen»

Bideoa grabatzen ari denak dio, «Pako, hasi berotzen, aterako zara!» eta pantailan ageri den gizona saltoka hasi da, besoak alde batera eta bertzera astintzen. Gizasemeak badu txapel berde bat buruan, eguzkitako antiojoak, militar txaketa, gerriko gorria, etxeko zapatilak... Ah! Eta benda batekin estalita du aurpegia, momien gisa. Berotzen ari den Pako, Francisco Franco diktadorea da. Donostiako Egia auzoan paseatu zuen gauetz, pasa den urriaren 24an, maleta bat eskuan, desorientatuta, 40 urte eta gero, Erorien Bailaratik atera dute eta ez zekien nora joan.

Noski, Franco hura umore handiko donostiar bat zen. Eta sasi diktadoreak Egiako auzoa poztu egin zuen eta irria eragin bideoa ikusi genuenoi. Umoreak sendatzen baitu zauri gaiztotuena ere. Hori bai, umorea beti, behetik goiti. Egitekotan, gure buruaz eta gu baino boteretsuagoa denaz egin irri, ez, behean dagoenaren kontura. Bertze hori opresioa da.

**«BEHEAN
DAGOENAREN
KONTURA IRRIRIK
EZ. OPRESIOA DA»**



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Txoriak handik, txoriak hemendik

Uso ehiza-denboraldia bukatzeaz dago eta kexu dira ehiztariak: gero eta guttiago pasatzen direla gure mendietatik, itsas aldetik igarotzen direla, Landetan gelditzen direla artoa jaten... Ehiztari haina iritzi. Baina ez al dira ohartu? Maria Jesus garai bateko akordeoilari famatuak jakinarazi du, ez duela gehiago *Pajaritos* joko Benidormen. Horra hor arrazoiak!

NABARMENTZEKOAK



**IRANTZU
ETXEBESTE**
BERAKO PILOTARIA



**MATXUS
PERUGORRIA**
BERAKO IKERLARIA

Irantzu Etxebeste beratarra Laboral Kutxa Master Cupen hasi da. Urriaren 27an debut bikaina egin zuen eta bide beretik segitu zuen hilaren 2an Beran egindako partidari. Biak irabazi zituen.

Europako Gastroenterologia Elkartearen eskutik, Europako ikertzaile gazteei zuzendutako Rising Star Award Saria irabazi du Matxus Perugarria beratarrak.

ATZERA BEGIRA



2009-11-12 · TTIPI-TTAPA · 506 zk.

Pello Apezetxea eta bere liburuak

Etxalarri buruzko bertze bi liburu idatzi zituen duela hamar urte Pello Apezetxea Zubirik: *Etxalarko etxeen izenak* eta *Etxalarren historiako zenbait jakingarri*; azken hori 800. urtetik XX. mendera herriaren historiaren zati handi bat bilduz. Jakin-nahia izan zen abiapuntua: «betitik interesatu zait eta bertzerik gabe, datuak koaderno batean biltzen nituen. Azken urteetan, ordea, zahartzen ari nintzela eta, datuak zokoan gelditu eta egunen batean norbaitek botako zituela-eta, eskura nuena jendeari eman behar niola pentsatu nuen». Gustura gelditu zen egindakoarekin, eta aldi berean, «lehenagokoa ezagutuz, gu eta gure gaurkoa ezagutzea garrantzitsua» dela azpimarratu zuen TTIPI-TTAPAN egindako elkarrizketan.

ttiipi-ttapa

erran.
EUS

TOKIKOM

Argitaratzailea
Ttiipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttiipi.eus

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea
Nerea Bazterrika
Eneritz Iraola
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Usua Vicente
Berriemaileak
Arkaitz Mindegia, Josebiñe Agirre,
Koro Iratzoki, Nerea Altzuri,

Joseba Urrotz, Iruñe Eitzagoien,
Maidier Petrirena, Oihana
Kalparsoro, Fermin Etxekolonea,
Fernando Etxeberria, Mattin
Larralde, Juan Mari Barriola, Iñigo
Imaz, Marga Erdozain, Maitane
Maritorea, Aranxa Iturralde,
Aranxa Gamio, Jaione Ariztegi,
Jaione Zabalo, Nerea Mortalena,
Virginia Oteiza, Pierre Bastres,
Ainhoa Asitz, Itxaso Arizmendi,
Xabier Maritorea, Maialen Iantzi,
Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea
Pello Apezetxea
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia
Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senperoko udalak,
Malerrekako Zerbitzuen Mankom.,
Zugarramurdioko Akelarre elkarte
2019ko harpidetza sariak
Baztan, Urdazubi 38€
eta Malerreka 26€
Leitza 26€
Hego Euskal Herria 44€
Ipar Euskal Herria, Europa 83€
Amerika eta Australia 130€

**Nafarroako
Gobernua**



**Gobierno
de Navarra**





KOLABORAZIOAK

GABI GOIA IPARRAGIRRE

Prestatuak gaude gure gurasoen zaintzaileak izateko?

Maiz aditu izanen duzu ondoko erranera: *Haur jaiotzen gara eta haur bihurtu*. Segur aski txantxa moduan ere erabili izanen dugu behin baino gehiagotan, baino egitan bigarren haurtzaroaren momentua iristen denean, bere kabuz baliatu ezin den pertsona gure aita edo ama denean, arazo latzarekin topo egiten dugu. Bizia eman digutenei, zahartzaroaren bidean laguntzea kosta egiten zaigu.

Jaiotzen garenean haurrak gara, babesgabeak, ahulak, eta zahartzaroan, bizitzaren zikloa ixtera doanean haur izatera itzultzen gara. Gurasoen zahartzaroan, seme edo alaba garenok zainduak izatek zaintzaile izatera pasa behar dugu, haurtzaroan gure babesa izan zirenak orain gure babesa behar baitute.

Eta ez gaude inolaz ere prestatuak, paper aldaketa hau onartzea bide luzea baita. Gure gurasoak hondatzen ikustea, heriotza gero eta hurbilago sentitzeak izutzen gaitu, haserrazten gaitu eta bizitza konplikatzen digu. Angustia honek gure bizitzaren bidaiak amaiera duela aitzinean jartzen digu eta eguneroko errealitatek aterazten gaitu. Heriotza biziaren parte da, bukaerak tristatzen gaitu eta oraindik gehiago, gure gurasoena baldin bada.

Gurasoak zaintzarekin beraien agurra prestatzen ari gara.

«GURASO ETA SEME-ALABEN ARTEKO HARREMANEAN OREKA DA AUKERARIK ONENA»

Seme-alaba hiperbabesleak izan gintezke, beraien ondoan gure bizitza hipotekatzerara iritsi arte edo bertze muturreraino joanez, egoerari uko egin eta distantzia jar dezakegu geu eta gurasoen artean... Ez bata ez bertzea ez dira gomendagarriak, bi aldeak kaltegarriak baitira zaintzailearentzat. Lehenengo kasuan askatasunik eta bizitza propiorik gabe gera baikintezke eta bigarren kasuan familiarekin harremanak hautsirik.

Bertze behin, oreka da aukerarik hoberena, sanoena. Oreka hau zehazteko moduak askotarikoak izan daitezke, hurbileko zahar-etxe batean bizitzea, etxea konpartitzea, bi etxetan bizitzea tartean elkartuz, kanpoko zaintza profesionala etxera ekartzea... Zaintza modu guzti hauek familia bakoitzaren egoera afektiboa, ekonomikoa eta laboralaren ondorioa dira eta ezin dugu erran bata bertzea baino hobea denik, are guttiago familiaren egoera ezagutu gaberik. Modua edozein izanda ere, hagitx garrantzitsua da hurbiletik eta maitasunez bide honetan akonpainamendua ematea eta jasotzea. Guraso eta seme-alaben eremuak eta momentuak errespetatuz, goxotasunez muga eta betebeharrak argiak ezartzea beharrezkoa da.

Bertze puntu garrantzitsu bat aipatu gabe ez nuke bukatu nahi. Gurasoekin konpondu gabe ditugun kontuak bizirik dauden bitartean moldatu beharko genituzke. Heriotzak ez du deus argitzen. Ez ditzagun biharko utzi gaur moldatu ditzakegun arazoak.

ZUHAITZ BELOKI LEITZA

XXI. mendeko urrea

Merkatuan arrakasta izaten ari dira sukaldeko robotak azkenaldian. Kuriositateak jota, horietako bati barrenak ateratzen ari ziren iaz bi gazte, bertan espero ez zuten pieza bat aurkitu zuten. Mikrofono bat zen, baina aparatuek ez zeukan ahots bidez aginduak emateko mekanismorik.

Sukaldeko aparatuek, edo egunero gainean daramagun telefonoek, entzun egiten al gaituzte? Asko dira lagunekin elkarrizketa bat izan eta gero, mugikorrean gai horren inguruko publizitatea azaldu zaiela susmatu dutenak.

Bestela ere, jakin badakigu gure interneteko arrastoa zein ederki jarraitzen duten publizitate pertsonalizatua erakusteko garaian. Zergatik ez dute ahotsaren teknologia erabiliko helburu horrekin, besteak beste?

Gure datuak nola erabiltzen dituzten erakusten duten adibide ugari daude. Google Maps erabili duena konturatu zen aplikazioak edozein errepidetako trafikoaren egoera erakusten digula denbora errealean. Edozein istripu gertatu dela, euriarengatik trafikoa moteldu dela, mapan gorritz agertzen zaigu errepedearen zati hori. Horretarako, noski, gure mugikorraren kokapenaren informazioaz baliatzen dira, gure mugimenduak etengabe aztertuz.

Ez gara atzo jaiok, eta esango nuke dagoeneko gehienok

«EROSOTASUNAK SAKRIFIKATZEKO PREST AL GAUDE? ZEREN TRUKE?»

bizimodu erosoagoa daukagu. Erosotasun horiek sakrifikatze prest al gaude? Zeren truke, zehazki?

Kontu honek hausnarketa hau egitera eramaten nau: erakunde pribatu solteek beren poltsikoak betetzeko erabiltzen gaituzte? Edo arazoa estrukturalagoa da, eta boterea duten gutxi horiek gizartea bide batetik edo bestetik eramatea dute helburu? Biak oso lotuta daude, erakunde pribatu horiek dirutza eskaintzen dien edozeini saltzen baitzikiete gure datuak. Eta, azkenean, ez dakigu datu horiek noren eskutaraino iristen diren, ez eta nola eta zertarako erabiltzen dituzten ere.

jabetzen garela zein kontrolatuta gauden teknologia berrien mundu honetan. Baina benetan arduratzen al gaitu horrek? Ordainetan gero eta zerbitzu aurreratuagoak jasotzen ditugu. Gero eta

11 GALDERA LABUR

MANEX ORMAZABAL ZUBIETARRA

«Rocka bizirik dagoela erakusteko jaialdi bat antolatzen ari gara»

Aurkeztu zure burua.

Zubietako gazte musikari, euskaldun eta abenturazalea.

Zein dira zure zaletasunak?

Musika jotzea eta aditzea eta atzerrira bidaiatzea. Surf egitea ere gustuko dut.

Noiz hasi zinen musika ikasten?

9-10 urterekin gitarra ikasten hasi nintzen. Bi urte eskas egin ondotik, alde batera utzi nuen. 14 urte nituela, herritarrekin erromeria talde bat sortzeko baxua ikasten hasi nintzen eta horrekin segitzen dut. Hala ere, bitartean gitarra nire kabuz jotzen ere jarraitu dut.

14 urtetan hasi eta zenbait taldetan ibili zara...

Bai, herrian sortutako Aierrick taldean lauzpabost urte, Askatu ska-rock taldean eta

Oharkabe erromerian bina urte, Estu&Larrin gehixeago eta, azkenik, Azken Trena taldean. Egun, azken horretan jotzen dut.

Noiz eta nola sartu zinen Azken Trena taldean?

Ni sartu aurretik taldea baze- goen, beste formatu batean. Talde akustikoa ziren eta aldatzea erabaki zutenean sartu ginen Mattin (bateria-jolea) eta biok. Eurek egin ziguten proposamena.

Emanaldi asko izaten dituzue?

Diskoaren aitzakiapen Euskal Herrian barna emanaldi batzuk eman genituen... Azken aldian, lasai samar gabiltza. Orain hilaren 30ean Zubietan izanen dugun jaialdiari begira hasiak gara.



Nondik sortu zen Piz&Lohi jaialdia egiteko ideia?

Rocka bizirik dagoela ikusarazteko eta hori indartzeko asmoz, eskualdeko talde batzuk elkartuta sortu zen. Gozatzea eta gozaraztea dugu helburu. Ikusiko dugu zer-nolako harre- rra duen...

Zein da herrian jotzearen berezitasuna?

Familia eta lagunak hurbil izatea beti da pozgarria, hemen rockzale gutxi dagoen arren.

Zer da musika zuretzat?

Gozatzeko tresna izateaz gain, terapiarako bitarteko ere bada: lasaitzeko edo motibatzeko aukera ematen didana, zoriontsu egiten nauena.

Zerk egiten zaitu zoriontsu?

Lagunek, familiak eta edozein bizipen onek. Adibidez, lagunekin kontzertu on bat ikusteak.

Amets bat?


Bi zaletasunak uztartuz, atzerrian musika-bira bat egitea.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak toailak
Edredoi-azal nordikoak

Funda nordiko eta edredoietan espezialistak



IRAKURLEAK MINTZO

Etxe goxoa

IULEN LIZASO ALDALUR

Eusko Jaurlaritzak dekretu berri bat osatu du, konpontzeko beti daukaten zailtasuna, modulatu eta enkajatu ahal izateko gazteentzako eta adinekoentzako etxebizitzaren puzzlearen piezak.

Konponbiderik gabeko arazoa da, inbertsioa alokairu sozialera ausardiaz bideratzen ez duten bitartean. Izan ere, ezinbestekoa bezain preziatua den ondasun sozial bat, espekulazio pribaturako objektu bilakatzen dute, bitxiak, akzioak... balira bezala.

Merkitaritzaren perbertsio maila berean, gauza bera egiten dute ondasun publiko handienarekin, urarekin. Klimaren kontrolarekin batera, horiek izango dira XXI. mendeko bi gerrak. Hurrengoa, airearena? Ez dago tarterik egutegian horretarako... eta ez da hatsik geratuko, berri bat egiteko.

Ondo ekipatutako zaharren egoitzak dauzkagu, intimitate falta kenduta; izan ere, logela konpartitu behar dute, geratzen zaien bizitzaren denboraren erdian. Irabazi asmoko merkitaritzaren irizpideen arabera privatizatzen ari denez, lan gatazkak eragiten ditu, zerbitzuaren kalitatean eta prezioetan eragiten dutenak. Eta zaharren egoitzak, eskola eta ospitaleekin batera, ez lirateke sekula negozioak izan beharko.

Etxebizitzaren puzzlearen komodina izan litezke, gutxiegi erabilitako etxebizitzak, bakarrik bizi diren adinekoenak, askotan irisgarritasun arazo handiak eta gehiegizko zarata dutenak.

Euskal medioetan oso isla txikia dauka, nahiz eta Europan aurreko

mendearen erdialdetik den eraginkorra, eta 2000. urtetik estatuko lurraldeetan. Adineko pertsonen etxebizitza kolaboratibo eta autogestionatuak, zaharren egoitzen alternatiba onena dirudi, sedentarismo apatikoa eta bakardadeko bizitza saihesteko.

Cohousing senior delakoa, zerbitzu komunitarioekin eta 24 orduko erizaintza asistentziarekin, erabilera eskubidearekin da (ez alokairua eta ez erosketak); eta Danimarkan sortu zen, 1960an. Hori sustatu eta, era berean, adineko pertsona horien etxebizitzekin hornitze hutsarekin, agintariak aurrezuko lukete lurra, sustatuko lukete enplegua, eta hobetuko lukete alokairu sozialaren eskaintza familia sortu nahi duten bikote gazteentzat.

Pertsona

ESTEBAN IRUSTA MALLEA

Hizkuntza guztiak izate biziak dira, eta ondorioz, etengabe aldatzen ari dira. Hitz askoren esanahia aldatzen joaten da denboraren poderioz. Horietako bat 'persona' hitza da. Jatorriz, bai grekoz, baita latinez ere, aktoreek beren antzezlanetan erabiltzen zuten maskarari deitzen zioten. Maskara horren helburua ahotsa hobeto entzutea zen. Ez dago esan beharrik garai haietan ez zegoela gaurko

mikrofono eta bestelako tresna teknikorik ahotsa ozenki entzuteko.

Latinez oso garbi ageri da bere helburua: '*per sonare*' erdaraz *para sonar* esan nahi duena. Haserako esanahi horrekin badauka nolabaiteko zerikusirik, gaur egun bai antzerkian baita zineman ere aktore eta antzezleek hezurramitu behar duten paperarekin. Baina gehienbat, pertsona hitzak beste esangura hau dauka: giza mota banakoa bere ekintzen jabe dena.

Erromatarrentzat, adibidez, esklaboak ez ziren pertsonak, gizaki soilak baizik. Baina gizakia, gaur egun ere ez da guztiz desegin pertsona hitzak maskararekin izan zuen loturatik. Denok daramagu nolabaiteko mozorroa gure bizitzan. Bi mundutan bizi gara. Bat denen agerian dagoena, eta bestea, guztiz desberdina, gutako bakoitzak bere barrenean bizi duena. Publikoki ageri dena, oro har, askoz baikorragoa izaten da. Inork ez ditu bere arazoak azaldu nahi jendaurrean. Bere etxekoei edo sendagileari azalduko dizkie dauzkan arazo fisikoak; baina fisikoak ez diren beste arazo mota asko ez ditu agerian jarriko. Horiek bere barrenean geldituko dira, eta askotan, arazo fisikoak baino larriagoak izaten dira, eta tratamendu zailagoa izaten dute.

Pertsonen intimitatea oso konplexua da eta arazo guztiei etengabe irtenbide bat aurkitu behar izaten zaie. Ez da zeregin samurra, eta bakoitzak uste duen konponbide onena aukeratu du. Baina, beti ez da asmatzen eta arazoak konpondu beharrean zaildu egiten dira, eta une horietan garrantzitsua izaten da beste pertsona erantzule eta egoki bati azaltzea daukagun arazoa.

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus




948 63 54 58

JAKIN BEHARREKOAK



Tunel bana eraikiko dute Almandozen eta Belaten

2025erako bi tunel eraiki nahi ditu Nafarroako Gobernuak: bat Belaten eta bertze Almandozen, bakoitza bi erreirekin. Halaxe jakinarazi zuen urri hondarrean Bernardo Ziriza Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak. Legedira egokitzeko eta segurtasuna handitzeko hartuko dituzte neurriak. Izan ere, kontseilariak oroitarazi duenez, joan den apirilaren 29az geroztik, bi tunelek ez dute Europako araudia betetzen eta «arrisku handiko tunelak dira, aireztapen aldetik gabeziak dituztelako eta larrialdietako irteerarik ez dutelako». Belateko tunelak 3,6 puntuko arrisku maila omen du eta Almandozkoak 2,3 puntuko; eta onartutako maila 1,5ekoa da. N-121-A errepidean ere hainbat konponketa egiteko asmoa du Gobernuak. Hala nola, 2-1 errete-sistema ezarri nahi du.



Nafarroa iparraldean airea gehien kutsatzen dutenen artean Leitzako paper-lantegia

Ecologistas en Accion taldeak airearen kutsaduraren inguruko ikerketa bat egin du urtarriletik irailera bitarteko datuak kontuan hartuz eta Leitzako Torraspapel Nafarroan konposatu organiko lurrunkor (KOL) gehien isurtzen duen lantegia dela adierazi du. Nafarroako Gobernuak atmosferaren kutsadura kontrolatzeko dituen bederatzi estazioetako datuak kontuan hartuz egin du ikerketa eta horren arabera, Nafarroan aurten ozono kontzentrazioa «nabarmen» igo da, «batez ere Erriberan, eta neurri tikiagoan Nafarroa erdialdean eta mendialdean». Irailera bitarteko egunak kontuan hartuz, estazio guztietan OMEK aholkatutako gehieneko kutsadura gainditu dute. Bederatzi gailu horietako bat Leitzan dago eta Leitzakoaren kasuan, aurten 34 egunetan gainditu dute muga -25 eguneko da urtean onartutako kopurua-. Are larriagoak dira bertze hainbat tokitako datuak. Tuterako behategian, erraterako, 117 egunetan gainditu dute muga.

BOTA BERTSOA

HAIRA AIZPURUA IBARGARAI

BAZTAN-BIDASOKO XXXII. BERTSOPAPER
LEHIAKETAN AIPAMENA (11-14 URTE)

Bertso eskolen topaketa

Doinua: Egun berezi bat bazela gaur



*Kolegioa fini zen eta
kontent ginen bakantzetan
bi gau pasatu behar nituen
bertso eskolen topaketan.
Burua lagun artean nuen
ta ez etxeko lanetan...
Nola pasa zen kontatuko dut
ondoko bertso hauetan.*

*Bertso eskolen topaketara
gateko gogo handia
banuen eta bideko nuen
lagun bikain bat, egia.
Atzean utzi herri, guraso
ta etxeko ataria...
Aitzinean zen topaketaren
nire lehenengo aldia!*

*Autobusaren zain hitzorduan
pixka bat nintzen izitu,
baina busean bilakatu zen
orena zena minutu.
Ni topaketan parte hartzeaz
ez naiz sekula damutu,
Iparraldeko bertsozaleak
bainituen ezagutu.*

*Orion zenez arrauna egin,
gero bertsotan klasea,
arratsaldean Xabier Sukia
hark maite du mintzatzea,
Egaña eta Onintzarekin
bertso-afari luzea...
Bertso eskola handi bihurtu
genuen aterpetxea.*

*Gaua kalakan pasa ondotik
gosaltzeko logurea...
Gero kantuan Jone ta Gurru
ze bikote dotorea.
Eta Benito Lertxundi ere
ze nolako ohorea!
Maiteago dut askoz kantari
mintzatzeko baino ordea!*

*Ta finitzea ailegatu zen,
hola izaten da dena...
Autobusetik nire jaistea
dut azken oroitzapena.
Lagunak berriz ikusteko dut
gaitzeko itzaropena...
Lehen topaketa izan dut baina,
ez da izanen azkena!*

HEMEROTEKA

«Batez ere 3. mailatik aurrera, irakaskuntzaren formatua ikasle guztiak mahaian eserita irakasleari begira jartzea da. Ez da aniztasuna kontuan hartzen (...) Badira irakasleak espazioak eta irakas-moduak berrantolatzen dituztenak ikasle guztiak iritsi daitezten informaziora, baina erabaki pertsonalak dira, sistema kontrako norabidean doa: adabakiak jartzen doa, eta adabakiek balio ez dutenean, gela egonkorretara bidaltzen dituzte ikasleak. Haur asko dira sistema horretatik kanpo geratzen direnak, horiek beste gela batera eraman eta kito, hori bazterketa da, ez inklusioa (...) Gela arruntean mantentzeko ikasleei eskatzen zaie: hitz egiteko gaitasuna, gelditu eta isilik egotekoa eta paper gainean lan egitekoa. Horietako batean huts egiten baduzu, gela egonkorreara zoaz. Lotsagarria da, sarri gakoa ez baita ikasleak ez duela barneratzeko gaitasunik, baizik eta ohiko bideetatik ez duela barneratzen».

KATTALIN EZKERRA SOBRINO HEZITZAILE ELIZONDOARRA
ARGIA. 2019.11.03



«Goian mantentzea zaila izanen da baina ez naiz saiatu faltan geldituko»

IKER SALABERRIA ORBEGOZO GOIZUETAKO PILOTARIA

Haurra zenetik attaren arrimuan frontoiz frontoi ibili den pilotari gazteak profesioaletara saltoa egin du. Hilabete hasieran Tolosan egin zuen debuta, garaipen garbiarekin.

G. PIKABEA GOIZUETA

Urte borobila izaten ari da Iker Salaberria Orbegozorentzat (Goizueta, 1999). Haurra zenetik txapel mordoxka irabazitakoa da pilotan. Zehatz esateko, 98 jantzi ditu guztira, eta horietatik ia hamar aurten eskuratu ditu. Hala ere, ez du txapel sortak egin urtea berezi 20 urteko gaztearentzat; koxka bat gora egin eta profesioaletarako saltoa egin izanak baizik. 3-4 urterekin attarekin pilotan hasi eta atta pilotako epaile izanda bere arrimuan frontoiz frontoi ibili zen mutilari «ttikitako ametsa» egia bihurtu zaio. Aspe pilota enpresarekin bi urtetarako kontratua sinatu du. Berriki egin du debuta, azaroaren lein Tolosan, eta ez nolana gainera. 13-22ko emaitzarekin partida irabazteaz gain, bikain jokatu zuen goizuetarrak. Estreinako partida gaudituta, argi du zein izanen den hemendik aurrera bere helburua: «pikkanaka gora egin nahi dut eta ea urte asko egiten ditudan goian pilotan jokatzeko».

Nondik datorkizu pilotarako zaletasuna?

Ttikitatik afizio handia eduki dut. Haurra nintzela beti pilotan aritzen nintzen eta jokatzeko ez bazen, pilota poltsikoan ibiltzen nintzen, noiznahi aritzeko prest. Asko gustatzen zait eta ordu asko sartutakoa naiz; bai attarekin baita lagunekin ere.

Goizuetako Umore Ona pilota eskolan hasi eta handik Doneztebeko Erreka elkartera joan zinen...

Bai, bederatzi edo hamar urterekin, Errekara joan behar izan nuen. Goizuetan ez zegoen pilotan jokatzeko nire



Haurra zenetik txapel andana jantzi ditu Salaberriak. Argazkia 2009koa da.



Pilotako bere ibilbidean txapelketa ugaritan parte hartu du. Argazkia 2015ekoa da.

«BETI BADA GOIZUETAR PILOTARIREN BAT GOI-MAILAN»

«LAU ETA ERDIKOA IRABAZTEAK EGINEN LIDAKE ILUSIO HANDIENA»

edadekorik eta pilotan segitzeko Doneztebera joan nintzen. Orain arte hantxe egon naiz, hamar bat urtez, baina Umore Onarekin beti oso ongi moldatu izan naiz.

Atta izan duzu erakusle?

Bai, hasiera-hasieratik, eta orain arte erabat berekin ibili izan naiz. Goizuetako pilota eskolaz bera arduratzen da eta ttiki-ttikia nintzela berekin hasi nintzen. Geroztik frontoietara beti lagundu izan dit eta entrenamenduetara ere nirekin ibili izan da. Gainera, orain dela urte batzuk arte profesioaletan epaile lanetan ibiltzen zen eta eskuetik hartuta Labriterako edo epaile lana egitea tokatzen zitzaion tokietara berekin joaten nintzen; aldageletan pilotariekin hitz egiteko aukera izaten nuen eta gustura ibiltzen nintzen. Orain niri tokatuko zait hola ibiltzea.

Ttikitako ametsa egia bihurtu da?

Bai, bai. Nik uste pilotan ibiltzen garen guztion ametsa profesioaletara pasatzea dela. Gutti batzuk lortzen dugu eta niri aukera eman didatenez, ahalik eta gehien gozatu eta bide honetan dena eman nahiko nuke.

Zer du Goizuetak goi-mailako hainbeste pilotari ateratzeko?

Herrian beti pilota izan da kirol nagusia. Futbolearen aritzeko baliabiderik ez dugu eta beti frontoian ibili izan gara, eta egia da pilotari asko atera direla hemendik: Aimar eta Asier Olaizola, Jon Apezetxea, Joxe Julian Salaberria... eta orain ni. Beti bada goizuetar pilotariren bat goi-mailan.

Asperekin profesioaletarako saltoa egin duzu. Nola hartu zenuen berria?

Abuztuan esan zidaten eta hasieran zur eta lur gelditu nintzen. Siestatik esnatu nintzenezan deiak eta Inaxio Errandonearen mezu bat ikusi nituen, deitzeko esanez. Asperekin debutatzeko aukera eskainiko zidatela esan zidanean, lehenbiziko bost egunak ezin sinetsiz pasatu nituen.



Iker Salaberriak profesionaletako ibilbidea ederki hasi zuen azaroaren 1ean. Rezustarekin bikotea osatuz, partida ederra jokatu zuen eta 13-22 irabazi zuten.

Gerora, pixkanaka-pixkanaka mentalizatzen hasi nintzen. Egia esateko ilusioz eta oso kontentu nago.

Baiko enpresarekin ere solasean ibili zinen...

Bai, entrenatzen ibili nintzen, baina ekainean Arretxeri kontratua berritzea erabaki zuten eta ez zidaten aukerarik eman. Hala ere, ez dut hori buruan. Beste aukera bat etorri zait eta oso gustura nago.

Asprekin bi urterako kontratua sinatu duzu. Nolako urteak espero dituzu?

Pausoak emanez goraka egin nahi nuke eta ea goian urte asko egitea lortzen dudan. Pilotari guztion ametsa goian ahalik eta urte gehien egitea da, eta hori lortzeko asko entrenatzen dugu. Badakit zaila izanen dela, baina saiatu faltagatik behintzat ez dadila izan. **Urte berezia izan da aurtengoa. Txapel asko lortu dituzu...**

Bai, nik uste aurtengoa nire urterik onena izan dela. Kantxan asko disfrutatu dut eta fisikoki ere hobeki sentitu naiz. Emaizak onak izan dira, baina hori baino garrantzitsuagoa iruditzen zait aldiro ongi jokatzeko eta gozatzea.

Asprekin entrenatzen hasi zarenetik nolako da zure asteroko martxa?

Astelehen, asteazken eta ostiraletan alderdi fisikoa lantzen dugu Tolosako gimnasioan, eta astearte eta ostegunetan frontoian pilotan aritzen gara, gehienetan Tolosan, eta batzuetan Iruñean edo Idiazabal.

Alde handia sumatu duzu Asprekin entrenatzen duzunik?

Hasieran, abiadura eta erritmo biziagoa nabaritu nintuen. Baina aste hauetan nahiko ongi egokitu naiz, entrenamendu onak egiten ditugu eta ongi sentitzen naiz.

Pilotan, zure zein ezaugarri nabarmenduko zenuke?

Aurrelari errematatzailea naitzela esanen nuke. Agresiboa izatea gustatzen zait eta orain arte defentsan ere nahiko ongi

ibilgi naiz. Ea hemendik aurrera nola moldatzen garen.

Eta hobetzeko zer duzu?

Botean eskuinarekin, gantxo... Badut zer ikasia eta horretan ari gara Jon [Apeztexea] eta Jokinekin [Etxaniz]. Ea poliki-poliki ikasten dugun.

Zergatik aurrelari?

Ttikitatik aurrean ibili naiz. Aurreko jokoa gehiago gustatzen zait eta dauzkadan ezaugarriekin atzean ez nintzateke moldatuko.

Partidetan urduritasunak gain hartzen dituzu?

Ez naiz asko urduritzen den horietakoa. Urteekin kontrolatzen ikasi dudana zerbait da. **Ikasten ere ari zara...**

Bai, Andoainen goi-mailako mekanizazio zikloa egiten ari

naiz. Aitortu behar dut nire egunerokoan ikasketek baino garrantzi handiagoa duela orain pilotak. Hortik bizi naiz eta lehentasuna pilotak du. Hala ere, argi dut pilotan jokatugatik ikasketak ezin ditudala alde batera utzi. Goi-mailakoa bukatuta, ikasten segituko dudala uste dut; beharbada irakasle ikasketak eginen ditut.

Nolako etorkizuna ikusten diozu pilotari?

Ona. Ez dakit Aimar eta Irujo bezalako pilotaririk aterako den, baina beti izanen dira pilotari onak. Gaur egun ere gazte asko dira onak: Altuna, Irribarria... Eta gehiago ere izanen dira.

Zein helburu dituzu pilotan?

Hasierako helburua hobetzea izanen da, pausoak pixkanaka-pixkanaka gora eta aurreraka ematea eta finalen bat edo bestelako aukeraren bat tokatzen bazait ahalik eta gehien aprobetxatu nahiko nuke.

Zein txapel janzteak eginen lizurke ilusiorik handiena?

Beti lau eta erdikoa gustatu izan zait. Afizionatuen mailan nahiko ongi moldatu naiz eta ilusio handia eginen lidake profesionaletan lau eta erdiko txapel bat janzteak.

Motzean

Aurkeztu zure burua: pertsona arrunta, mendian ibiltzea eta lagunekin kalean ibiltzea gustatzen zaiona.

Pilotari bat? Aimar Olaizola.

Noren aurka jokatuko zenuke? Altunaren aurka.

Pilota ez den beste kirol bat? Tenisa.

Pilotan jokatu aurretik maniarik baduzu? Partidetara beti galtzontzilo gorriak eramaten ditut.

Frontoi bat? Labrit.

Bizitzeko toki bat? Oraingo, Goizueta.

Goizuetako tokirik gustukoena? Frontoia.



Argazkian ageri diren gazteek joan den urriaren 12an egin zuten azaroaren 28rako ikasle grebarako deialdia. UTZITAKO ARGAZKIA

Ikasgelak hustu eta karrikak hartzeko prest

Egungo hezkuntza sistemaren «zanpaketak» salatu eta euskal hezkuntza sistema propio bat aldarrikatzeko ikasleak grebara deitu dituzte azaroaren 28rako. Euskal Herriko ikasle mugimenduetako hainbat kidek, tartean eskualdeko gazte ugari, egin dute deialdia.

G. PIKABEA

Indarra izan eta eman gure hezkuntzari lelopean grebara deitu dituzte ikasleak azaroaren 28rako. Euskal Herriko ikasle mugimenduetako hainbat kidek egin dute deialdia, «espainiar eta frantziar estatuek inposatutako hezkuntza sistemen zantpaketak salatu eta euskal hezkuntza sistema burujabe bat sortu» nahi dutelako.

Bortzirietan 'Ikasleok Tinko!'

Eskualdeko gazte talde ugari bat egin dute aldarriarekin, tartean, iaz lanean hasi eta ikasturte honetan sortu duten Berako institutuko Ikasleok Tinko! taldeak. «20 bat ikasle» direla eta «gogotsu eta indartsu» ari direla kontatu digute Ekhiñe Zapiain Arlegik (Bera, 2002) eta Beñat Iantzi Etxartek (Lesaka, 2000). Zapiainek aitortu

tu digunez, «nasionalki antolatzeko beharra» ikusi zutelako, «Euskal Herriko bertze txokoetako jendearekin» elkarlanean hasi, eta «*Gora ikasleon borroka*» dinamikaren baitan greba deitu dute. «Helburua Euskal Herriko ikasleria kontzientziatu eta jendarte-ri ikasleok egungo hezkuntza sistema zantpatzailearekin ados ez gaudela eta horri aitzin egiteko antolatu garelako erakustea da». Halaxe azaldu digu Iantzik.

Baztanen ere lanean

Baztanen, Lekarozko institutuko ikasleek ere badute mu-

gimendua. Garazi Sarobe Sansiñenak (Elizondo, 2003) aitortu digunez, «joan den urtean hasi ginen biltzen, baina taldea aurten egonkortu dugu eta 22 lagun gara». Sarobe bezala, Baztango ikasle mugimenduko kide den Markel Adin Bidegainek (Arizkun, 2004) erran digunez, «desadostasunak aldarrikatzeko eta aldarrikatu nahi duguna erakusteko» egin dute grebarako deia.

Leitzan ere grebarako prest

Leitzan iaz sortu zuten ikasle taldea, Xabat Illarregi Marzolek (Leitza, 2001) kontatu digu-

nez, «gaiari buruz hausnartze-ko eta mugitzen hasteko». Geroztik bai «lokalki» eta ekainaz geroztik baita Euskal Herriko bertze ikastetxeekin ere lanean ari dira. Joana Sagastibeltza Zabaletak (Leitza, 2004) Leitzan bost lagun biltzen direla adierazi digu eta «ikasleok ditugun problematikei eta zapalkuntzei aurre egiteko» bat egin dutela Euskal Herri mailako mugimenduetarekin. Illarregientzat «garrantzitsua da ikasleen artean zapaltzen gaituen eta gure nahiak mugatzen dituen hezkuntza sistema honen inguruan kontzientzia piztea, baita kritika egitea ere, aldaketarako modu bat baita».

Ikasleen egoera «txarra»

Ikasleen egoerak ezinegona sortzen die sei gazteei. Adin eta Sagastibeltzarentzat, egoera hori «txarra» da, leitzarraren ustez, «zapalkuntza asko ditugulako» eta arizkundarraren arabera, «zenbakitzat hartzen gaituen hezkuntza bat inposatzen digutelako». Saroberi ere

«SISTEMA ZANTPATZAILEREKIN EZ GAUDE ADOS»

BEÑAT IANTZI ETXARTE, LESAKA

«GREBA HAU OINARRIZKO URRATSA DA»

GARAZI SAROBE SANSIÑENA, ELIZONDO

«IKASLEOK ZAPALKUNTZA ASKO DITUGU»

JOANA SAGASTIBELTZA ZABALETA, LEITZA

«ikasleak zenbaki hutsak» iruditzen zaizkio, «ikasketetan dugun gaitasunagatik bereizten gaituzte onak eta txarrak garen; kalifikazioetan hartzen dugun nota bertzerik ez gara».

Zapiainek, berriz, «espainiar zein frantziar hezkuntza sistemen aldetik, ikasle euskaldunak zanpatuak» ikusten ditu eta Iantzik «bi estatu horiek gure herria hainbat aspektutan zanpatzen» dutela dio: «eta hezkuntzak berebiziko garrantzia du zanpaketa horretan».

Ikasle mugimenduak «garai hobeak izan dituela» uste badu ere, «injustiziei aitzin egiteko antolatzen den ikasleria» badela oroitarazi du lesakarrak. Bere hitzetan, «gehiengo zabalagoa egungo hezkuntza sistemarekin ez dago ados». Illarregi eta Zapiainek ikasleak «deseroso» sumatzen dituzte; «beharturik gaudelako gure maila azterketa bateko notara mugatzera, beharturik azterketa erabakigarri bat egitera ikasketekin jarraitzeko, beharturik ezarritako aurpegi batek historia ikastera, beharturik diru kantitate jakin bat gastatzera ikasteko materiala edukitzeko...», dio leitzarrak.

Kezka bai, baina mugimendua gutti. «Batzuei oraindik antolatzekeo pausoa ematea falta zaiela» azaldu du beratarrek eta lesakarraren ustez, «ikasleak ez dira aitzin egiteko antolatzen eta egitekotan indibidualki egiten dute». Argi du horren «erruduna sistema» dela: «sistemak balore indibidualistetan hezten gaitu, esperientziak erakutsi baitio ikasleria banatuta baino arriskuetsuagoa dela antolatuta».


Hezkuntza sistemarekin haserre
Hezkuntza sistemarekin ere kritiko dira. Adinen hitzetan, «zanpatzailea» da eta Zapiainek

**«ANTOLATUZ GERO
POSIBLE DA EREDU
PROPIOA LORTZEA»**

EKHIÑE ZAPIAIN ARLEGI, BERA



Beñat Iantzi Etxarte lesakarra.



Garazi Sarobe Sansiñena elizondoarra.



Joana Sagastibeltza Zabaleta leitzarra.



Ekhiñe Zapiain Arlegi beratarra.



Markel Adin Bidegain arizkundarra.



Xabat Illarregi Marzol leitzarra.

nentzat «sistema kapitalista heteropatriarkatuari mesede egiten dion eredu da». Iantzik, berriz, «momentuko gobernuak aukeratutako balioen baitan hezten gaituen sistema» dela nabarmendu du eta Illarregik hezkuntza sistemak ikaslea «sumiso izatea» nahi duela uste du, «ahoa itxi eta iritzi kritikorik ez edukitzera bultzatzen baitute». Saroberen hitzetan, sistemaren helburua «makina sortzea» da: «ikastea ez da kontutan hartzen, nota ona ateratzea baizik».

Mugitzeko deia

Grebarekin bat egin duten eskualdeko sei ikasle dira Zapiain, Sarobe, Iantzi, Illarregi, Adin eta Sagastibeltza eta «injustizia, zanpaketa eta proble-

**«IKASLEAK
KONTZIENTZIATZEA
GARRANTZISUA DA»**

XABAT ILLARREGI MARZOL, LEITZA

matikei aitzin egiteko», gainerako ikasleek azaroaren 28an euren bidea hartzea nahi dute. «Frantzia eta Espainiatik ezarritako sistema hau aldatu beharra dago, eta horretarako ikasleak mugitzea besterik ez da geratzen», aipatu digu Illarregik.

«Jendea grebara batuz eta ikasleak antolatuz, gure eredu lortzea posible dela» sinetsita dago Zapiain, «agian ez epe laburrean, baina bai gerora». Bide horretan, Sarobek argi du greba «oinarritzko urratsa» izanen dela, «ikasleak mugitzen ari garela eta hezkuntza sistema zanpatzaile honen aurka gure aldarriak erakutsiko ditugula ikusarazteko». Hortik aitzinera, «antolakuntza egonkortuta, lanean segituko»

**«GREBAREN
ONDOTIK LANEAN
SEGITUKO DUGU»**

MARKEL ADIN BIDEGAIN, ARIZKUN

dutela onartu digu Adinek. Illarregiri ere ez zaio iruditzen «horrelako zerbaitek greba hutsean geratu behar duenik. Grebak jendea pizteko eta hor gaudela jakinarazteko balio du, eta hortik aurrera hasten da helburu bat lortzeko bidea». Sarobek «hurrengo pausoak antolakunde propioa sortzea eta poliki-poliki lanean segitzea izanen direla» gaineratu du.

Egunari begira, inguruan grebak erantzun «ona» izatea espero dute, nahiz eta mobilizazioetan parte hartzea «zailagoa» izanen dela dioten. Iantzi «ziur» dago «ikasleen %99ak grebarekin bat eginen duela, %100a ez errateagatik», baina aldi berean «ziur» dago «greba eginen dugun ikasle guztiak ez garela Hego Euskal Herriko hiriburuetan antolatuko diren mobilizazioetara agertuko, eta batzuk greba klasea galtzeko eginen dutela». Garbi utzi nahi izan du greba «borrokarako tresna» dela, «eta ez klasea galtzeko zerbait».

Garmendiko borda eta Maletenea irabazle aurten

Gasna eta sagardo lehiaketak irabazi zituzten urriaren 27ko Lurraren Egunaren 33. edizioan

TTIPI-TTAPA

Gure Txokoak hogeita hamahirugarren aldiz antolatutako Lurraren Eguna arrakastatsua izan zen urriaren 27an eta ehun eskulangile ingururen eta 40 elikadura produktuen postu hedatu zituzten Altzate karrikan, Altzateko Plazan eta besta egun honetan gero eta protagonismo handiago hartzen ari den Illekuetako zubiko bertze aldean ere, Merkatuko Plazan. 33. gazta lehiaketako eta 22. sagardo lehiaketako epaimahaiak ere lanean aritu ziren, azken hauek Karneseanean.

Gazta lehiaketan zazpi ale aurkeztu zituzten eta horien artean, Garmendiko Bordako Sokorro Almandozek aurkeztutakoak irabazi zuen 300 euroko lehen saria eta ia irabazle suertatu zen Berako

Pimitxeneko Eider Pikabeak eraman zuen 200 euroko bigarren saria.

Sagardo lehiaketara, berriz, hamasei botil sagardo aurkeztu zituzten eta horien artean, Berako Maleteneko Alejandro Alzugurunenak lortu zuen 200 euroko lehen saria; bigarrena, 100 euro, ia irabazle suertatutako Lesakako Endara auzoko Aialde baserriko Alberto Otxotekok eskuratu zuen. Josu Iratzoki beratarra izan zen hirugarren.

Egun osoan, besta giroa bizitu zen Beran, musika eta dantza lagun. Ikastetxeetako ikasleek ere, bere produktuak eta zozketak salgai paratu zituzten, baita kantuak eskaini ere, gehienek ikas-bidaia ordaintzeko. Lurraren Eguneko lantaldeak taloak prestatu zituen egun osoan. Arratsal-



Barazki ederrak ikusteko aukera izan zen Merkatuko Plazan. AITOR AROTZENA

dean, bertsolariek girotutako sari banaketaz gain, muxikoak dantzatzeko aukera ere izan zen, Kuxxuntu txarangarekin.

Erakusketa Labiaga ikastolako areto berrituan

Urtetan Rosa eta Totonon Errandoneak paratu izan duten argazki erakusketari txanda hartuz, Lurraren Egunaren bezperan ireki zen Labiagako aretoan Aitziber Orkolagaren *Plaketak* erakusketa. Egun berean egin zen areto berritu honen inaugurazio ofiziala eta ikasturte osoan, erakusketak hartuko ditu larunbat eta igandetan. *Plaketak* erakusketa abenduaren 29ra bi-

tarte bisita daiteke, larunbat eta igandetan, 16:00etatik 20:00etara.

Barazkiopil lehiaketa

Hamahirugarren barazkiopil lehiaketa ere egin zen bezperan. Zazpi kuadrilla artean, Oihan Pikabeak, Iciar Paternainek, Leire Inzak eta Amaia Bikuñak osatutako Zinaurriak I taldeak irabazi zuen lehen saria, 200 euro, oroigarria eta bi kaja ardo; bigarren izan ziren Izen Gabekoak taldekoak, Irene Matxiarena, Itxaso Irigoien eta Garbiñe Iguaranek osatutako hirukotea, eta kaja bat ardo lortu zuten. Nabo Taldea izan zen hirugarren.

JAIONE - LOXOTEGIA

 Etxean egindako produktuak
 948 630 786 • Altzate, 21 • BERA


xuga
 tel. 948 631 519 | www.xugabera.com | www.facebook.com/xugabera


LABE ZAR
 Astelehenetik ortziralerara:
 07:15etik aitzinera
 Larunbata eta igandea:
 08:00etatik aitzinera
 948 631 076 • BERA

AUZO GO!
 Etxerako zerbitzua BERAn

- Sarrerakoak
- 1. eta 2. platerak
- Postreak
- Edariak
- Eguneko menua
- Menu bereziak

INFORMAZIO GEHIAGO edo ESKAERAK EGITEKO: www.auzoago.com • T. 948 63 15 09



f 

Europako sari handia lortu du Matxus Perugorriak


Europako Gastroenterologia Elkarteak emandako Rising Star Award Saria eskuratu du herriko ikerlaria

TTIPI-TTAPA

Urtero-urtero, Europa osoko sei-zortzi ikerlari kliniko gazte bereizten ditu United European Gastroenterology (UEG) elkarteke zuzendaritza batzordeak, Rising Star sariak emateko. 2019ko edizioan, sarituetako bat Matxus Perugorria Montiel beratarra izan da, Biodonostia Osasun Ikerketa Institutuko Ramon y Cajal ikerlaria. Urriaren 23an jaso du saria Bartzelonan.

Matxus Perugorria Biodonostia OIiko gibeledo eritasunen taldean dago, eritasun hepatico eta gastrointestinalen atalean. Gibeledo gaixotasun kronikoaren, fibrosiaren eta zirrosi hepaticoaren zabalakundean eta gibeledo tumore primarioen garapenean parte hartzen duten mekanismo molekular eta zelularren ikerketan esperientzia handia eta nazioarteko aitortpena dauka herriko ikerlariak.

Rising Star sariak 40 urte baino guttiagoko Europa osoko profesional gazteen kalitateko ikerketen ibilbidea nabarmentzen dute, gastroen-



Matxus Perugorria ikerlaria.

terologia arloan nazioartean eragina duten ikerketak, alegia.

Biologia eta Biokimika ikasketak egin ondotik, gibeledo gaitz kronikoen inguruan doktoretza egin zuen Matxus Perugorriak. Ingalaterrara joan zen eta hiru urtez han ibili zen Fibrosi Hepatikoan sakontzen. Duela bost urte Euskal Herrira itzuli zen Ikerbasque Fundazioak nazioartean dauden ikertzaile gazteak erakartzeko egindako deialdiari esker eta geroztik Donostian ari da.



UTZITAKOIA

Bederatzi orduz emakumeak pilotan

Lau eta erdiko Laboral Kutxa Emakume Master Cup txapelketako hirugarren kanporaketak emakumezkoen pilota onenaren bederatzi ordu eskaini zituen azaroaren 2an Eztegarra pilotalekuan. Guztira 15 partida jokatu zituzten, tartean, Irantzu Etxebeste herritarrak Nagore Aramendi serie-buruari 18-13 irabazitakoa. Publikoak, Goldatz emakume taldearen bi pankarta eta guzti (*Jo pilota neskak, paretak bota arte!* eta *Emakumeok ahaltzu, aupa Irantzu!* zioten), herriko pilotaria bultzatu zuen.

Santa Zezilia eguneko kontzertua Musika Eskolan hilaren 18an

Isidoro Fagoaga Udala Musika Eskolak antolatuta, Santa Zezilia musikariaren eguneko kontzertua eskainiko dute azaroaren 18an, astelehenean 18:00etan Musika Eskolako areto-nagusian. Ikasleek irakasleen laguntzarekin eskainiko duten emanaldiaren ondotik, joan den ikasturtean solfeoko bigarren maila bukatu zuten ikasleei diplomak emanen dizkiete.

Kafe-Antzerki Zikloko azken bi emanaldiak

Berako XXI. Kafe Antzerki Zikloa igandean abiatu zen Katakun, *Tabernaria* antzezlanarekin. Azaroaren 17an, igandean, 18:00etan, Bidaxkan *Manifestu bat* eskainiko du Beheko Larraine taldeak. Bukatzeko, azaroaren 24an, igandean, 18:00etan, Goxune kafetegian, *Bakean dagoenari bakean utzi* eskainiko dute Idoia Torregarai eta Mirari Martiarenak.

SMAZIZIOR

edariak

ESKAERA EGITEKO:

T./F. 948 631 557
T. 676 051 660
Ordulegia: 10:00-13:00 eta 16:00-18:00
Helbidea: Ziobi, 3 ALKAIAGA
eposta: maziziorsenper@gmail.com

Zure neurria
prestatuko ditugu opariak!

ENPRESA ETA PARTIKULARRENTZAT

15€ tik gora

OPARI BAKOITZAK
BERE KUTXA DAUKA

Zalaingo lantegiko botikinean erizaina izatea eskatu dute

Urriaren 24an istripu larria izan zuen Saldiasako langile batek eta zerbitzu hori berreskuratu behar dela uste du komiteak

AITOR AROTZENA

Transformados Zalain lantegian lan-istripu larria gertatu zen urriaren 24an eta zauritutako langile saldiastarra Donostiako Ospitalera eraman zuten Zainketa Intentsiboko anbulantzia batean.

Istripua artatzera Elizondoko komisariako foruzainak bertaratu ziren. Handik gutira Berako Osasun Etxeko mediku-erizainak bertaratu ziren artatze lanetan laguntzera eta berehala anbulantzia Donostiako Ospitalera abiatu zen.

Langileen Batzordetik adierazi dutenez, «zaurituaren bilakaera baikorra baldin bada ere, bizi guzira ondorio larriak izaten ahal ditu». Hori horrela, lankide eta komiteko kideek «elkartasuna eta babesa» adierazi nahi dizkiote bai berari baita bere senideei ere.



Elkarretaratzea egin zuten langileek.

Komitearen ezohiko batzarren ondotik, txanda guztietan batzarrak eta elkarretaratze bat egin zuten, *Lan istripu gehiagorik ez* lelopean. Komiteko kideen arabera, «arriku prebentzioaren arloak lehenatasuna behar luke eta hor izugarrizko hutsunea dago. Horren adierazle garbia gure lantegian gertatzen diren istripu larri kopurua». Hori horrela, «ATS duen botikinarean zerbitzua berreskuratzea» garrantzitsua delakoan daude.



AITOR AROTZENA

San Fermin Elkarteak omenduak

85 urte (Carlos Pellejero) eta Urrezko Ezteiak (Juan Irazoki-M^a Angeles Zozaia, Evaristo Otxoteko-Mari Jose Portu, Juan Fernandez-Maripaz Maritxalar, Pakito Portu-M^a Jose Telletxea eta Manolo Arozena-Dolores Albizu) ospatzen dituzten bazkideak omendu zituen San Fermin elkarteak.



UTZITAKO ARGAZKIA

'Arnasa gara' egitasmoaren aurkezpena

Euskararen arnasguneetako herritarrek euskararen ongizatean duten garrantziaz jabetzeko *Arnasa gara* kanpaina aurkeztu zuten urriaren 26an Harriondoan. Horren barnean ekoizti duten *Kartzela* serie digitaleko aktoreak ere izan ziren ekitaldian, tartean Juanen Saralegi herritarra.

Lesakako Emakume Taldearen aurkezpena

Azaroko lehen asteburuan Jardunaldi Feministak egin ondotik, hilaren 6an egin zuten Arranon Lesakako Emakume Taldearen aurkezpena. Azaroaren 25eko Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Egunerako ekitaldiak antolatzen ari dira.

Musika Eskolak kontzertua emanen du azaroaren 20an

Musika Eskolak kontzertua eskainiko du azaroaren 20an, asteazkenean 18:00etan Harriondoa Kultur Etxean. Feria bezperako Merkatu Eguna musikaz ongi hornitua egonen da, ordu berean hasita trikitixa taldea ibiliko baita karrikaz karrika.

Gipuzkoako eraskusketarik zabalena:
sehaskak, konbertibleak, kotxeak, sillitak...
Autoetarako aukietan adituak
(probatu eta instalatzen ditugu)

TOY PLANET
Jostailu guztiak aurkituko dituzu
(klasikoak, berrienak...)

AUKERA ZABALA!

Letxunborro hirib. 86, IRUN
(bezeroentzako parking estalia)
www.jostamendittikiak.com

LESAKAKO FERIAK

2019 / azaroak 20-21



Feria giroak aurea hartuko dio asteburuari

Ferriak maite dituenak izanen du asetzeko aukera azaroan; astero azokaren bat izanen baita eskualdean. Azaroaren 21ean, ortzegunarekin, Lesakan izanen dute hitzordua. Goizean artisau eta azienda azokak hartuko ditu plaza bazterrak. Eguerdia arte, Baztango Gaiteroak karrikaz karrika ibiliko dira. 11:00etan herri-kirol erakustaldia izanen dute, plazan. Ondotik, Lizaso eta Soto bertsolariak igoko dira oholtzara. Azienda lehiaketako sariak banatuta, mahaiaren bueltan bilduko dira herritarrak. 17:00etan pilota partidak izanen dira pilotalekuan. Pala egokituan, Lizaso eta Lasa, Navaridas eta Matarratzen aurka ariko dira. Lau eta erdian, berriz, Olaizola eta Beroiz Elizalde eta Martinezen aurka. Eguna akitzeko muxikoak izanen dituzte Jeiki Hadi taldearen eskutik. Egun handia ortzegunean izanagatik, bezperan ere izanen da mugimendurik: herriko historiari buruz zertxobait ikasi, sabela bete eta sukaldaritzarako dituzten dohaiak agerian uzteko aukera izanen dute.

ONGI PASA FERIETANI!
borzburud
INPRENTA - HOPISTEGIA
948 631 521
material guztietan inprimatzen dugu
Hamisetak / oparitzeko artihuluak

Dia %
Ferietan otordu goxoak prestatzeko
LESAKA LESAKAKO DIA
Plaza Berria, 10 • 948 637 335

asesoria
Emaitza
AHOLKULARITZA
Kontable • Fiskala • Laborala
ongi pasa ferriak!
Eltzeta, 20 behe LESAKA | 948 638 077 | amaia@emaitza.eu

TALLERES FRAIN
LESAKA • Tel.: 948 637 525
Ongi pasa ferriak!

IÑAKI JANARIDENDA
- ONGI PASA FERIAK -
Arretxea, 12 • LESAKA • 948 638 287

TRANSPORTES IRIGOYEN
ONGI PASA FERIAK!
629 592 215 • Biurrana auzoa, 1 • LESAKA

KULTURKARI
Diseinu grafiko | Publizitatea
Zure jatetxeko diseinuarekin menuak, kartak, mahai-oihalak, musuzapiak, baso-azpikoak, etab. pertsonalizatzen ditugu
kulturkari.com

ITURBENA
ONGI PASA FERIAK
kafetegia
Koskontako bidea 5, behe - LESAKA

ARRANO
ostatua
Albistur 13, Lesaka. 948 627 597
KROKETAK, PINTXOAK, BOKATAK,
ENTSALADAK, PLATER KOMBINATUAK
ta giro bikaina
PRESO TA IHESLARIAK ETXERA!

IRU-BIDE
OSTATU • JATETXEA
Ongi pasa feriak!
Arratzubi Kalea 3 LESAKA
T. 948 63 71 27

IZARRA OKINDEGIA
ongi pasa feriak!
PLAZA ZAHARRA 12-13 31770 LESAKA NAFARROA
TEL: 948 637 855

erran.
eus
Mendialdeko Albistek

OSTATU ZANTZONEA JATETXEA
ZANTZONEA
JATETXEA
Tel.: 639 626 812 | Bittiria 3 | 31770 LESAKA

kattagorria
EUSKAL JANTZIAK
KOLEKZIO BERRIA
FERIETAN EGUN OSOAN ZABALIK
BEHEKO PLAZA 10, LESAKA - 948 627 514
WWW.KATTAGORRIA.COM

LESAKAKO FERIAK • 2019

«Etorkizunean aziendak izatekotan elkarlanean aritzea ezinbertzekoa izanen da»

Jose Angel ZUBIRIA LEIZA

Saltsero hitza darabilte ahotan Zubiriaz solas egiten duten gehienek eta aitortu digu: «gustatzen zait ahal dudan neurrian laguntzea». Zer erranik ez aziendak tartean badira: «ttikitatik etxean ikusi dudan zerbait izan da. Aitak betidanik lanerako zaldiak izan ditu».

Gazte-gaztetatik hortan ibili izan dela aipatu digu: «eskua banuen eta patata edo arto tartean errelduak egin behar zirenean, ni jartzen ninduten zaldiarekin aitzinean eta aita eta bizilaguna makinarekin aritzen ziren gibeletik». Baina lana soilik ez, gozamina ere eman die zaldiek: «monturazko zaldia dut orain. Terrenorik ez dut, baina bati eta bertzeari eskatuz, bizia bilatuz, lortu dut nire zaldia izatea. Eta egia erran, hagitx gustura ibiltzen naiz».

Apustua

Ibili eta ez edonola, uda partean zerrana eman zuten Zubiriak eta bere zaldiak: «zaldia nahiko txukun ibiltzen zela ikusten nuen eta duela urte batzuk zaldi baten eta lasterkari baten artean egin zuten apustua errepikatzeke inguruan zirikan aritu nintzen. Baten kontra beharrean bi pertsonen kontra aritu nahi nuen nik».

Larunbat eguerdi batean, kafe baten bueltan, lotu zuten apustua: «Saralegiri bota nion erronka. Lasterka ongi ibiltzen da bera eta ingurukoak ere tartean sartu eta animatu egin zen». Bikotea topatu eta zaldia, bi lasterkariren aurka aritu zen azkenean: «zaldiak irabazi zuen, baina larri. Polita izan zen, aunitzetan jendea ekartzeko zer egin pentsatzen aritzen zara eta hori gauza aunitzik gabe egin eta jende aunitz bildu zen». Anekdotatiki bat ere kontatu digu: «Bera aldera, erdi gordean, zaldiarekin entrenatzera joan eta Saralegi



familia osoarekin egin nuen topo!», gordean ibili nahi eta behar ez zuenak ikusi azkenean».

«Lesakan bada azienda duen gazte kuadrilla dezentea. Ez dakit nondik heldu den horrelako afizioa»

Ferien antolaketa

Azienda kontuak goiti eta beheiti ibilita, feria ezin aipatu gabe utzi. Antolaketa lanetan ibili da azken aldian: «bilerak egin ditugu eta baserriarekin zer azienda jaitsi behar den solastatu eta aitzineko urtetik zer hobetu behar

den ikusi dugu». Antolaketa hori aitzinetik eginda, feria eguneko lanak erraztu nahi dituzte: «zenbat azienda heldu den jakinda, ongi banatu eta eta horrela azizendak zuzenean bere lekura joan dira». Lehiaketan ere moldaketa tiki bat egin dute: «Ardien presentzia indartzeko bortz ardi eta ahariarekin lotea osatzeko eskatu diegu baserriarrei. Salmentarako txoko bat jartzea ere pentsatzen ari gara». Feria egunez aldatzea ere urtero mahai gainean jartzen duten kontua omen da: «feria asteburura pasatzea burutan izan dugu aunitzetan, baina momentuz bere horretan utzi dugu».

Feriak biziz

Goizean goizik hasten du feria eguna: «aitzineko egunean hasten gara azizendak mendian biltzen eta feria egunean baserriarrei azizendak jaitzen laguntzen diet. Astia baldin badut, hortxe nago laguntzeko». Seiak alderako lanean hasi eta, «kakaz oratu alde guztietatik, ezin kargatuz ibilita ostikadaren bat jaso...» irrika laburbildu digu egitekoa, «gero, herrira ailegatzen garelarik azizendak lotu eta gosaltzera joaten gara». Sari-banaketa ikusi ondotik, «azizendak baserri eta belar-soroetara eramaten ditugu. Luze egiten da, azizendak utzi orduko 16:00 izaten dira. Gero etxera joan dutxa bat hartu bixi-bixi eta bazkaltzera joaten gara. Egundagitz polita da guzretzat».

Feria indartsu

Azizenda feria indartsu dagoela dio, «aspaldiko urtetan azizenda dezentekartzen da feriarra. Bertze urte batzuetan parte hartu izan ez duen jendea ere animatu da aurten». Alde horretatik, gazteen artean piztua den interesa azpimarratu nahi izan du: «Lesakan bada azizenda duen gazte kuadrilla dezentea. Monturako zaldiak, behiak, betizuak... Ez dakit nondik heldu den horrelako afizioa».

«Feria asteburura pasatzea burutan izan dugu aunitzetan, baina momentuz bere horretan utzi dugu»

Horrek etorkizuna izan dezan, «elkarlana» funtsezkoa izanen dela uste du eta eman dute pausoa: «whatsapp taldea egin dugu eta hasi gara bilerak egiten. Zer mendi garbitu behar den traktoreekin, zein erre... denon artean erabakitzen dugu. Duela gutti, erraterako, auzolan bat egin dugu Artikutzako mugako zerrakura berritzeko». Egunerokoan ere hagitz ongi heldu zaie hartu-emanazitea: «azizendaren bat behar ez den tokian ikusten badugu taldean idazten dugu. Ezagutzen ditugu baten eta bertzearen azizendak eta horrek erraztu egiten ditugu gauza guztiak».



Giroa berotzen hasteko

Hitzordu nagusia ortzegunean, azaroaren 21ean, badute ere, bezperan, izanen dute mugimendurik. Feriak antolatzen hasi zirela 520 urte bete dira aurten eta gaiaren inguruan solasaldia antolatu dute 17:30ean Herriko Etxeko Batzar Aretoan. Segidan, 18:00 aldera, belarriak eta sabelak goxatzeko aukera izanen da. Urtero bezala, Beti Gazte elkartearen eskutik, ajoarriero lehiaketa eta dastaketa izanen dituzte Beheko Plazan (euria ari badu Alondegiko arkupeetan eta gaztain jatea. Ordu berean, Lesakako trikitixa taldekoek kalejira egiten dute.

Hitzaldia eta sukaldaritza ikastaroa prest

Herritar guzientzako irekitako ekitaldiak antolatu ditu Larraburua elkarteak

IRUNE ELIZAGOIEN

Larraburua elkarteak antolatu, hitzaldia eta sukaldaritza ikastaroa egingen dituzte asteotan.

Azaroaren 16an, osasuna hobetzeko aholkuak emanen ditu M^a Jose Indaburuk 18:00etatik aitzinera.

Azaroaren 8an hasita sukaldaritza ikastaroa emanen du Iñaki Pikabeak ortziraletan 18:30etik 20:30era. Izena emateko 948 63 51 66 edo 664 38 73 43 telefonora deitu behar da.



Pikabeak emanen du ikastaroa.

Bi ekitaldi interesgarri hauek denentzako irekiak dira eta Larraburuan bertan izanen dira.

Usategietako denboraldia azken txanpan sartua da

IRUNE ELIZAGOIEN

Nahiko eguraldi aldrebesa egin du aurtengoan uso denboraldian. Hori dela eta, berte urtetan baino uso gutiago pasa da. Azaro hasiera arte 46 dozena zituzten sareetan harapatuak baina oraindik sasoiak bukatzeko falta diren 20 egunak ongi aprobetxatzeko es-

perantzarekin daude usozaileak.

Bertzetik, Lizaietan dauden C-PAL elkarteak 50 txoloma anilatu zituen sasoi hasieran. Bisita gidatuei dagokienez, eguraldi ona denetan behintzat jende dezente animatzen da tradizio zahar hau ezagutzeko bisitak egitera.



TIRAMILLAS TV

Navarra Telebistako 'Tiramillas' saioan

Urriaren 7 eta 8an grabaketak egin ondotik, urriaren 24an emititu zuten Etxalar herriari eskainitako saioa. Ordu bete eskas irauten duen saioa ikusgai dago *Tiramillas* saioaren webgunean, baita youtuben ere. Paula aurkezleak gidatuta, hainbat herritar eta Etxalarko xoko erakusten ditu saioak.



IRUNE ELIZAGOIEN

Hilerria lorez apaindua

Azaroaren 1ean, urtero bezala, herriko hilerriak itxura aldatu zuen, Santu Guztien egunean. Ohitura mantenduz, jende aunitz ibili zen hilerrian, familako hildakoak gogoratuz bisitan eta lore koloretsuz apainduta geratu zen, tristurari eta oroitzapenari alaitasun puntua emanez.



*lagunarte, familia,
kinto besta...*

OSPAKIZUN GUZTIETARA
EGOKITZEN GARA

ETXALAR | T. 948 63 50 00 | www.etxalar.com | info@etxalar.com



Alberto RETEGI
abokatu
abokatu

© 948 630 763 · Alzate, 17 · BERA



USOA
Nekazari kooperatiba

**ORAIN
GASOLINA ERE**

T. 948 635 214 ETXALAR



Hagitz txukun dago kanposantua, tenore honetan ohikoa denez. OSKAR TXOPERENA

Kanposantuko zati berria erabiltzeko arauak onartzeaz

Urriaren 25ean egindako bileran proposatutako banaketak, baldintza estetikoak eta aurrekontuak erakutsi zituzten

TTIPI-TTAPA

Urteak dira herritarren eskar-riku ikusita kanposantua za-

baltzeko gestioak hasi zituela Herriko Etxeak. Agintaldi sailtxo bat joan zen gestioak bi-

deratu eta gauzatzeko. Azkenean, 2014-2015eko neguan egin ziren handitze-lanak eta prest gelditu zen beharrezko pausuak eman eta arauak zehazteko.

Bilera urriaren 25ean

Zerrenda bat ireki ondotik aukera izan dute herritarrek euren eskariak egiteko eta dagoeneko alde berria erabiltzen hasia da. Gai honetaz arduratzen den zinegotziak bilera egin zuen urriaren 25ean zerrendan daudenekin eta bertan erakutsi zizkien proposatutako banaketak, bete beharreko baldintza estetikoak eta lehenbiziko hilobien guti goiti-beheitiko aurrekontuak. Hilobien arteko nolabaiteko berdintasuna edo oreka gordetzea da Udaltzatzen asmoa. Halere, bilkuran agertutako zenbait ideia hausnartzekotan gelditu ziren.

Hagitz txuku dago orain kanposantua, tenore honetan urtero bezalatsu.

Mus eta partxis txapelketako sariak Baratzondon

Baratzondo Elkartearen udazkenean jokatzen ari diren mus eta partxis txapelketaren sari banaketa abenduaren 3an egingen dute elkartearen aretoan, bazkari eder baten ondotik. Ekitaldian parte hartu nahi duenak azaroaren 23rako ohiko lekuan eman beharko du izena.

Giltzarri Abesbatzak kontzertua emanen du abenduaren 14an

Giltzarri Abesbatzak bere urteroko Eguberrietako emanaldia Igantzin eskainiko du, bigarren urte jarraian. Abenduaren 14an izanen da eta ohiko ordutegia errespetatu gero, ilunabarreko mezaren ondotik izanen beharko luke, 20:30 aldera.

Eskolako ikasleek urteroko auzolana egin dute

Urriaren 30ean egin zuten auzolana eskolako ikasleek. Koxkorrenak Berrizaunera joan ziren trenbide eta ibai inguruko zaborra biltzera. Haur Hezkuntzakoak, berriz, hosto biltzen aritu ziren Baratzondoko atarean.



caser residencial
www.caserresidencial.es

Egonaldi motak

- Egonaldi iraunkorrak
- Aldi baterako egonaldiak familiaren atsedenerako
- Erreabilitazioa, operazio ondokoak eta gaixondoak
- Alzheimerra eta bestelako demenziak dituzten gaixoentzako egonaldiak
- Eguneko zentroak:
 - 365 egunetan irekiak
 - Garraio zerbitzua Irun, Hondarribia eta Hendaiara
 - Iparraldearekin hitzartuak APA diru-laguntzak

ANAKA | Anaka, 8 - IRUN | Tel.: 943 667 780
BETHARRAM | Zubieta, 161 - HONDARRIBIA | Tel.: 943 647 169

F. LANCHAS

Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

Serorenbordako gaztak irabazi du gazta lehiaketa

Ahari lehiaketan Oskozeneko aziendak nagusitu dira inoiz baino postu gehiago paratu dituzten Baserritarren Egunean

NEREA ALZURI

Ekaitza Elkarateak antolaturiko Baserritarren Egunean, urtero bezala harrera ezin hobea izan zuen azaroaren 1ean. Bertako barazki, lore, fruitu, zerriki, gozoki, talo, ezti, oilasko, eskulan, oroigarri, tresna, azien... iaz baino postu gehiago ikusi ahal izan zituzten hurbildutako dozenaka lagunek. Herriko trikitilari eta panderojole taldeak girotu zuen goizko lehenbiziko tartea, besta-gunera jendea gonbidatuz.

Frontoira sartzeko bidean, aziendak ikus zitezkeen: ponia, zaldikumea, behorra, untxiak, usoak, oilaskoak, artaldea, ahariak... Merkatu bilakaturiko frontoian, berriz, postu erreldoa koloretsu zegoen etxeko produktuekin, eskulan eta nekazaritza-tresnekin. Eta ostatuan, eskolako guraso eta irakasleak lanean, tragoxka eta pintxo beroak eskaintzen.

Gazta eta ahari lehiaketak ere egin zituzten. Bortz gazta aurkeztu zituzten eta Serorenbordakoa izan zen irabazle; bigarren eta hirugarren postuetan Larauburuko bordako

eta Martineko bordako gaztak gelditu ziren. Aurkeztutako denak saldu ziren. Ahari lehiaketan, berriz, Oskozenekoek irabazi zituzten bi sariak. Eta bertako produktuez osaturiko zarea Pueskineko Rakel Arozenari egokitu zitzaion.

Larunbat arratsalde osotua

Ez zen asteburuko kontu bakarra izan. Azaroaren 2an, duela hiru urte bezala, Niala magoak aho zabalik utzi zituen bertaratutakoak bere trukoe-kin. Ondotik Partxis txapelketan hamabi bikotek parte hartu zuten, eta guztien artean, Xuban Taberna eta Enaut San Juan nagusitu ziren eta bigarren Kattin Madariaga eta Ainhize San Juan gelditu ziren.

Ondotik jokatu zen mus txapelketan, hamaika bikote elkartu ziren. Gaizka Almandozek eta Dabid Iturriak eraman zuten sari nagusia eta bigarren saria Ander Almandoz eta Xabier Gamontzat izan zen.

Urriko kultur ekitaldiak

Azaroko lehenbiziko asteburuan ez ezik, urri hondarrekoan



Kultur egun ederrak izan dira aurtengoak. M. LARRETxea / A. MAEZTU / I. UGALDE

ere ekitaldiak izan ziren: *Bortzirriak Solasean* liburu eta DVDaren aurkezpena, *Aralar: mundua leku den lurra* dokumentalaren emanaldia eta horren gaineko solasaldia,

Ixabel Ipuin-kontalaria, Bankako Menditarren kantaldia, *Tabernaria* antzezlan... Ekitaldi guztietan ibili ziren herritarrak, baita gustura ibili ere.

E D A R I A K

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.eus

aterpe
albergea jatetxea ostatua

T. 948 634 179 | ARANTZA
www.arantza.net

TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Andueza e Iriarte, SL

Zalain Industrialdea, 42B-4.pab BERA
T. 948 631 452 | 639 608 034 | 639 125 046

Herriko erretiratuak ere omendu ditu Arkupeak elkarteak

85 urte bete eta Urrezko Ezteiak ospatu dituztenekin batera, literatur lehiaketako sarietako bat lortu du Pako Paskualek

MAIDER PETIRENA

Urriaren 24an Arkupeak Elkarteko kideek Bazkide Eguna ospatu zuten. Inguruko bazkide aunitz elkartu ziren, herrikoak tartean, egun eder honetaz gozatzera.

Eguna mezarekin hasi eta omenaldiekin segitu zuten. Omenduen artean 85 urteko Consuelo Fernandez sunbeldarrari oroigarria eman zioten eta familiarekin egun polita ospatu zuten.

Bertzetik, Urrezko Ezteiak ospatu zituztenen artean Jose Ma^a Sainek eta Carmen Zozaiak

osatatuko bikoteak ere oroigarria hartu zuten.

Omenaldiak bukatutakoan hainbat lehiaketetako sariak eman zituzten. Narrazioko sarien artean bigarrena Pako Paskual Barrena sunbeldarrak eskuratu zuen *Cuatro Amigas* lanarekin. Ospakizun giro horretan, bazkaria eta musikaz gozatzeko tarteak izan zuten.

Ebasketak

Urriaren 26 eta 27ko asteburuan herrian ebasketak izan ziren. Kontuz ibiltzeko mezua bidali dute.



Urrezko Ezteiak ospatu dituzte Jose Mari Sainz eta Carmen Zozaiak. UTZITAKOIA



Consuelo Fernandezek alboan izan zituen herritarrek. UTZITAKOIA

Koldo Herrera garaile Oteizako lasterketan

Urriaren 27an ospatu zen DN Openeko karreran, Oteiza de la Solanan, Koldo Herrera Urrozek lehen postua lortu zuen. Horrez gain, aipatuko dugu kuadrilla ederra elkartzen dela mendi-bizikleta proba hauetan parte hartzeko.



Pako Paskual Barrenak saria lortu du bere narrazioarekin. UTZITAKOIA

Goieko
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO SISTEMA ETA PRODUKTOAK

DESINSEKTAZIOAK • ARRATOI-HILTZEAK • EGUR TRATAMENDUAK

T. 948 625 597 • Zalain, 42 B • BERA

DESINSEKTAZIOAK

BORDALARRIA

Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
T. 943 467 244 | 943 467 444 • carnessein@bordako.com

Gure Haragia
Nuestra Carne

MARTIKO

Dasta ezazu!

DENDA ORDUTEGIA Astelehenetik-ortziralerara 08:00-17:00
Martiko. Zalain Ind z/g. 31780 Bera. Nafarroa
Tel: 948 625 016 • www.martiko.com • martiko@martiko.com



Ur-depositu berriko lanak.

Depositu berria urte hondarrerako akitzea aurreikusi dute

365.000 euroko aurrekontua duten lanak egiteko Tokiko Inbertsioen Planetik dirulaguntza hartuko du Udalak

TTIPI-TTAPA

Ur-depositu berria eraikitze-ko lanak aitzinera doaz. 2017-2019 denboraldirako Tokiko Inbertsioen Planetik hartutako dirulaguntzari esker, Udalak 364.829,30 euroko inbertsioa egingen du deposituan eta gisa honetara, funtzionamendu hobea eta uraren kudeaketaren kontrol egokia bermatu nahi ditu.

Orain arteko deposituaren ondoan ari dira berria egiten, pixka bat gorago, eta Mariezkurrena enpresa ari da arduratzen. Lanak aurreikusi bezala egiten badituzte, deposti-

tua urte hondarrerako akitua izatea espero du Udalak.

Mendaur Plana onartu zutenetik, Iturenen dagoen biltegitik hodi bitartez herriko depositura ura ekarrita hornitu izan dira herritarren ur-beharrak. Azken urteotan, ordea, lur mugimenduaren ondorioz, biltegia hondatua gelditua zen. Arraildura bat tarteko depositua ezin da goraino bete.

Bertzetik, Udalak joan den urtera arte uraren banaketa sarean zeuden ihesak moldatu zituenetik ur-jario horiek erdira murriztu ahal izan dira.

Hilabeteko itxialdiaren ondotik liburutegia zabalik

Urri hasieratik itxita egon ondotik, azaroaren 6an ireki zizuten berriz liburutegiko ateak. Enplegu bulegotik Mirentxu Santesteban zubietarra kontratatu dute eta bera da langile berria. Liburutegia ohiko ordutegiarekin irekitzen dute: 16:00etatik 20:00etara.



ORIAMENDI

Erremontea utzi du Etxeberria III.ak

22 urtez profesionaletan ibili ondotik, Jose Jabier Etxeberria Lakanbra Etxeberria III.ak aio erran dio erremonteari. Urteotan guztiotan hainbat txapel eta garaipen garrantzitsu lortu dituen 46 urteko erremontistak azaroaren 9an jokatzekoa zuen hondarreko partida Hernaniko Galarretan.



Urtero bezala, indarkeria sexistaren aurka elkarretaratzea egingen da aurten ere.

Azaroaren 25aren bueltan hainbat ekitaldi izanen dira

TTIPI-TTAPA

Azaroaren 25a Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela eta, egun horren bueltan hainbat hitzordu izanen dira.

Azaroaren 22an, genero indarkeria salatzeke elkarretaratzea egingen dute biribilgunean, 12:00etan. Egun berean, *Irungo emakumeak plazara* dokumentala ikusteko aukera izanen da zineman, 20:00etan.

Asteburua borobiltzeko, hilaren 24an, *Berdintasunari Konta eta Kanta* haurrentzako tailerra antolatu dute. Herri-gunean egingen dute, 11:30ean.

Gazte Burrenbak, bere aldetik, emakumezko bertsolariekin bertso-afaria antolatu du azaroaren 30erako. 20:30ean bertso-poteoa egingen dute eta 21:30ean afaltzeko bilduko dira Herriko Ostatuan. Lerro hauek idazterakoan Sarai Robles eta Saioa Alkaiza bertsolarien parte-hartzea baieztatua zuten eta hirugarren baten erantzunaren esperoan zeuden Gazte Burrenbako kideak.

Afarirako txartelak Titi ostatuan eros daitezke; Gazte Burrenbako bazkide direnek 20 eurotan eta bazkide ez direnek 25 eurotan.

Errota zaharreko presa botatzen hasiak dira

Gune horretan presa desmuntagarri tikiago bat paratuko dute, udan bainurako putzu bat sortzea ahalbideratuko duena

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernua Elgorriagako errota zaharreko presa botatzen hasi da eta hori, Eguzki eta Rios con Vida taldeen iritziz, «arunt albiste ona da».


Eguzki Talde Ekologista eta Antinuklearrak bidalitako oharren arabera, «presa aspaldi-aspalditik zegoen abandonatuta. Orain dela hamar bat urte eraiki zuten arrain-eskalak, berriz, ez du inoiz behar bezala funtzionatu. Gauzak horrela, presa oztopo gaindiezina izan da izokina eta bertze

arrain espezie batzuk Ezkurra errekan goiti eta beheiti ibiltzeko». Kontuan izan behar da Ezkurra Bidasoaren adarretako bat dela, eta, hain justu, izokina dela arrazoi nagusietako bat Bidasoa Natura 2000 Sarearen parte izateko, bertze hainbat natura baliorekin batera. Ura hartzeko eskubideak bertan behera uztea eta ibai barreneko oztopoak kentzea ibaiak hobetze-bidean helburu nagusietakoak dira, Eguzkirentzat. Elgorriagako errota zaharreko presa bota ondotik, aisialdi-



Presa botatzeko lanean. NAF.GOBERNUA

rako gune bat egokituko dute ibai ertzean. Gune horretan presa tikiago bat paratuko dute, desmuntagarria. Presa horrek ekain eta irail bitartean bainuetarako baltsa edo putzu bat sortzea ahalbidetuko du. Eguzkik dioenez, «presa berri horrek, desmuntagarria izan den arren, errezeloak sortzen dizkigu eta adi egotera behar tuko gaitu, baina berriro diogu: presa zaharra botatzea albiste ona da».



Errota zaharreko presa lehen. EGUZKI



PROMOCIONES
MALERREKA

Informazioa: 629 951 170 (Aitziber)

**AUKERA
BIKAINA!**

9 ETXEBIZITZA:

115m² arteko etxeak

3 atiko

**Denek 3 logela,
sukaldea, egongela,
2 bainu, trastelekuak
eta lurpeko garajeak**

Lokal komertzialak

Sunbillan
neurria egindako
etxebizitzak



**EZKAIN
ERAIKUNTZAK-ek
eraikiak**



✓ Zure beharren araberako finantziazioa,
Rural Kutxaren babes eta abalarekin

Tailerra eta inauteriei buruzko hitzaldia azaroan

Hilaren 22an eta 23an zehaztu dute hitzordua herriko ludotekan

FERMIN ETXEKOLONEA

Malerrekako Mankomunitateak, Udalaren laguntzaz, berdintasuna lantzeko tailerra eta inauteriei buruzko hitzaldia antolatatu ditu azarorako.

'Berdintasunari kontatu eta kanta' tailerra

Azaroaren 22an, ostiralean, izanen dute lehendabiziko hitzordua. Zehazki, hiru eta hamabi urte bitarteko gazte-txoei bideraturiko 'Berdintasunari kontatu eta kanta' tailerra izanen dute. Ludotekan bilduko dira, 18:00etan eta Hai-

zea Loira musikoterapeuta izanen dute gidari.

Inauteriei buruzko hitzaldia

Biharamunean, larunbatean, berriz, inauterien bilakaerari buruz solastatzeko elkartuko dira. Ludoteka izanen dute bilgune, 19:00etan.

Hitzaldia Aitzpea Leizaolak, Antropologian eta hizkuntzalaritzan lizentziatua den Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak, bideratuko du eta, besteak beste, emakumezkoen parte hartzea izanen du hizpide.

Piz&Lohi jaialdia azaroaren 30ean estalpean

Baztango, Malerrekako, Bortzirietako eta Leitzako musikarien bilgune bihurtuko da herria azaroko azken larunbatean, hilaren 30ean. Izan ere, Joseba Irazokiren eta Zaki Kill, Kaskezur, Ozpinduk, Azken Trena eta Sodade taldeen eskutik, kontzertuak izanen dituzte herriko estalpean. Arratsaldean adituko dira lehendabiziko musika doinuak (ordua zehazteke dute oraindik) eta gaualdi bukaeran DJak girotuko ditu bazterrak.



Joseba Irazoki bertan izanen da.

Arkupeak elkarteak Engraxi Urriza omendu du

Urriaren 24an Gorraizen ospatu zuten Bazkideen Egunean, Arkupeak elkarteak ezkontuta 60 edo 50 urte egin dituztenak eta aurtan 100 edo 85 urte bete dituztenak omendu zituen. Azken horien artean izan zen Engraxi Urriza herritarra. Urte askotarako Engraxi!



Engraxi (eskuinean) omenaldian.

ONGI PENTSATU DUZU?



Zenbat eta gazteagoa izan, orduan eta arrisku handiagoa.



Memoria eta arreta gutxitzen dizkizu, eta eskolan eta lanean zailtasunak sortzen.



Pertzeptzioa eta erreflexuak gutxitzen ditu eta istripu arriskua areagotzen.



Antsietatea eta ikara eragin ditzake, eta pertsona batzuetan gaixotasun mentalak.




Bere onuren inguruko sinesmenek, tolerantzia soziala areagotu eta arriskuaren pertzeptzioa gutxitzen dute.

Inauteriak antolatzeneko bilera azaroaren 24an

Malerrekako Mankomunitateak antolatuta, inauteriei buruzko hitzaldia izanen dute bezperan

ARKAITZ MINDEGIA

Inauteriei begira hasiak dira herritarrak eta horixe izanen dute azaroko bi hitzorduek ardatz. Batetik, Mankomunitatearen eskutik, azaroaren 23an, 17:00etan, inauteriei buruzko hitzaldia izanen dute. Bestetik, antolatzaileek inauterietarako proposamenak biltzeko bilera deia egin dute azaroaren 24rako, hondarreko iganderako. 18:00etan Herriko Etxeko ganbaran zehaztu dute hitzordua. Hasteko, 2019ko inauterien balorazioa egingen dute; eta ondotik, hel-



lazkoen balorazioa egingen dute.

du den urtekoei buruz solastatuko dira: musika, sukaldariak, erosketak... izanen dituzte hizpide. Azkenik, Kontuen Egunaz aritzeko tartea hartuko dute.

Ariztegi denda zabalik azaroaren 6az geroztik

Herritarrek, azaroaren 6az geroztik, berriz ere, erosketak bertatik bertara egiteko aukera dute. Bi urtez zerbitzu honen faltan izan dira eta azkenean, Jone Altzu Juanikorena herritarrak hartu du denda kudeatzeko ardura: «herrian eta herritarrei zerbitzua emateko lan aukera ikusi nuen. Egia erran erabakia hartzea ez zen erraza izan eta herritarren babesa sumatzea lagungarri izan zitzaidan». Gogotsu hasi du bidea.



Denda zabalik da berriz.

'Konta eta kanta' tailerra azaroaren 23an

Malerrekako Mankomunitateak antolatuta, berdintasuna lantzeko 'Konta eta kanta' tailerra izanen dute azaroaren 23an, larunbatean, herrian. Haizea Loira musikoterapeutak gidatuko du tailerra eta arratsaldean, 17:00etan, dute hitzordua.

Errigorako saskiak eskatzeko aukera azaroaren 20a arte

Errigorako saskiak eskatzeko epea zabalik da azaroaren 20a arte, Alix Gereka edo Iker Gorosterrazurekin harremanetan jarritz. Hiru saski daude aukeran: beltza (betikoa) 50 eurotan; berdea (ekologikoa) 60 eurotan; eta zuria (berezia) 70tan.

KALAMUAK ZURE GARUNARI ERAGITEN DIO

Oroimena eta kontzentrazioa gutxitzen dizkizu.
Istripuak eta eritasun mentalak eragiten ahal dizkizu.
Zenbat eta gazteagoa zaren, arrisku handiagoa izanen duzu.



KALAMUAONGIPENTSATUDUZU.NAFARROA.EUS

Nafarroako Gobernua  Gobierno de Navarra

Berdintasunari lotuta hainbat ekitaldi azaroan

Malerrekako Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuek tailerrak, dokumental emanaldiak eta hitzaldiak antolatu dituzte

TTIPI-TTAPA

Malerrekako Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuek antolatuta, genero berdintasunari lotuta Malerrekako eta Bertizaranaren egiten ari diren hitzorduek ondoko asteetan segida izanen dute. Aipatu behar da duela hilabeteko TTIPI-TTAPAN ekitaldi horien data batzuk aipatu zirela, baina geroztik aldaketak egin dituztela Malerrekako Mankomunitateko kideek agendan.

Aste honetan

Aste honetan, Elgorriagan, Gaztelun eta Urrozen izanen dituzte ekitaldiak. Larunbatean, azaroak 16, Elgorriagan *Berdintasunari Konta eta Kanta* tailerra egingen dute. Haizea Loirarekin genero berdintasuna landu bidenabar, 3 eta 12 urte bitarteko haurrek ipuin-kontaktetaz gozatu eta kanta sortu eta kantari aritzeko aukera izanen dute, 18:00etan. Igandean, berriz, Urrozen egingen dute. *Berdintasunari Konta eta Kanta* tailerra frontoian egingen dute, 18:00etan. Gaztelun, bertetik, igandean, *Irungo emakumeak plazara* dokumentala ikusteko aukera izanen dute, 16:00etan. Historiak baztertutako Irungo emakume aipagarrienen gaineko dokumentala da.

Heldu den astean gehiago

Azaroaren 22an, ortziralea, alde batetik, *Berdintasunari Konta eta Kanta* tailerra egingen dute Zubietako eskolan, 18:00etan. Bertetik, Doneztebeko zinean, *Irungo emakumeak plazara* dokumentala eskainiko dute, 20:00etan.



Leizaolak hitzaldiak eskainiko ditu.

Biharamunean, azaroak 23, *Berdintasunari Konta eta Kanta* tailerra Iturenen egingen dute, 17:00etan Ganbaran. Ordu eta egun berean, baina eskolan, iturendarrek emakumeekin aurturietan gaia izanen dute hizpide Aitzpea Leizaolarekin. Egun berean Zubietako eskolan hitzaldi hori eskainiko du Leizaolak, 19:00etan. Asteburua borobiltzeko, azaroaren 24an, *Berdintasunari Konta eta Kanta* tailerra Doneztebeko Herrigunean eskainiko dute, 11:30ean.

Haurrendako tailer gehiago

Hilaren 29an, Saldiasen *Berdintasunari Konta eta Kanta* tailerra egingen dute, 18:00etan udaletxean, eta hilaren 30ean Legasan hitzordu bera antolatu dute, 18:00etan eskolan. Abenduaren 2an Sunbillan egingen dute, 17:30etan sabaiain; abenduaren 6an Ezkurrako jubilotekan, 17:00etan, eta abenduaren 7an Oizko udal-etxe ganbaran, 17:00etan.



IZASKUN ZUBIALDE

Saldiasko eskolakoak Zubietako erroten

Saldiasko eskolako Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako 13 ikasleek eta irakasleek Zubietako errota bisitatu zuten urriaren 25ean. Eguraldia lagun, ikasiz gozatzeko aukera izan zuen argazkian Edorta errotozainarekin ageri diren neska-mutikoez eta Izaskun eta Leti irakasleek.

Merkatariek Eguberrietako estra zozketatuko dute bezeroen artean

TTIPI-TTAPA

Doneztebeko Merkataria eta Zerbitzu Elkartek Eguberrietako estra zozketatuko du abenduaren 2ra arte elkarteko saltokietan erosketak egingen dituzten artean. Erosketak egingez, bezeroek zigiluak lortuko dituzte eta horiekin eros-

keta-txartel bat bete beharko dute. Betetako erosketatxartel guztien artean abenduaren 5ean zozketa egingen dute. 800, 500 eta 300 euroko hiru opari-txartel zozketatuko dituzte eta irabazleek abenduaren 9tik 21era aldatu ahal izanen dituzte elkarteko saltokietan.



ERREKA

Errekako lasterkariak Lizuniagako Igoeran

Urriaren 26an Beran jokatu zen Lizuniagako Igoeran parte hartu zuten argazkian ageri diren Errekako lasterkariak. Ez hori bakarrik. Doneztebeko Santi San Miguelek laugarren egin zuen sailkapen nagusian eta beteranoetan bera izan zen lehenbizikoa.



2019

ERAIKUNTZA

gehigarria



SUKALDEAK

Etxetresnak
Pareta-armairuak
Sukalde eta bainugelako altzariak



T. 948 450 925
M. 677 525 292 • 677 525 324
Amezitia zeharkarrika, 1 • DONEZTEBE

Erabakia hartzeko bultzadatxo bat

Igogailua jarri edo berritu edota eraikin osoko leiho, ate eta paretak eraberritzeko obrek aurrekontu handia izaten dute baina badira dirulaguntzak

Auzokideen arteko bileretan eztabaidagai izaten dira aunitzetan eraikinaren egoera eta egin beharreko zaharberitze lanak. Eraginkotasun energetikoa hobetu edota sarbide-irteerak erraztuko dituzten neurriak hartu behar izaten dira eta aurrekontu handia duten obrak direnez, auzokide guztiak ados egotea ez da erraza izaten.

Hala ere, jakin behar da badirela apartamentuetako edo pisuetako sarbide-irteeretan traba arkitektonikoak kentzeko (berdin du igogailua jada baduen edo ez) edota, eraikin osoaren kanpoko



leiho, ate eta paretak eraberritzeko eskura daitezkeen dirulaguntzak.

Nafarroako Gobernuak, erraterako, aurrekontu babesgarriaren % 20-45 arteko dirulaguntzak ematen ditu, kasuaren arabera. Urte osoan zehar egin daitezke eskaerak eta tramiteak bideratzeko bi bulego daude gure inguruan: **Donezteben (Nasuvinsa) eta Leitzako Udalean, Etxeak Zaharberitzeko Bulegoan**. Bi bulego horietan informazio zehatza ematen diete auzo-lagunen komunitateko ordezkariari tramiteak nola egin azalduz.

DIRULAGUNTZAK ESKATZEKO BALDINTZA OROKORRAK

- Obra hasi baino lehenago aurkeztu behar da laguntza eskaera.
- Eraikinak 25 urte baino gehiago izan behar ditu.
- Aurrekontu babesgarriak, etxebizitza bakoitzeko eta zergak kontatu gabe, 6.000 eurotik gorakoa izan behar du inguratzaile termikoa hobetzeko kasuetan; eta 2.000 eurotik gorakoa traba arkitektonikoak kendu nahi diren kasuetan. Galdetu xehetasunak Nasuvinsan edo Leitzako Udalean.
- Aurrekontu babesgarrian sartzen diren atalak: obraren aurrekontua, arkitekturen faktura, EET txostenaren kostua (Eraikinen Ebaluazio Txostena) eta tasak dira.

Suteia-Zaldain
instalazioak
IGOGAILUAK

Santiago, 71 | ELIZONDO
T. 948 580 166 | M 619 424 999
suteia@suteiazaldain.com

PROFESIONALAK
KALITATE-BERMEA
IRISGARRITASUNA
MANTENTZE LANAK



1 KANPOKO IGOGAILUAK

Kanpoko fatxadan guztiz integratuak, portal barrutik sarbidea. Inpaktu eta eragozpen minimoak. Mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako sarbidea.



2 BARRUKO IGOGAILUAK

Eskailerako tartean integratuak. Sarbidea portal barrutik, inongo oztoporik gabe. Mugikortasun arazoak dituzten eta gurpil-aulkian daudenentzako egokituia.



3 IRISGARRITASUNA

Mugikortasun arazoak dituzten eta gurpil-aulkian daudenentzako portalerako sarbidea egokitzen dugu. Azkar egiten ditugu lanak, eragozpen minimoak sortuz.



EZ ZAITEZTE KEZKATU! Gu arduratuko gara proiektu osoa landu, obra baimenak tramitatu, dirulaguntzen eskaerak egin eta gremioak koordinatzeaz.



BAZTAN
Ferreteria

PINTURA · AROZTEGIKO GAUZAK
KRISTALAK · TRESNERIA · OPARIAK ...

T. 948 580 423

Santiago, 79 · Industrialdea
31700 ELIZONDO

*Etxeak aldatzen ditugu...
Gauzak aldatzen ditugu*

Nasuvinsa 
Navarra de Suelo y Vivienda, S.A.

ETXEBIZITZAK ZAHARBERRITZEKO LAGUNTZAK

*Etxebizitza, hirigintza
eta lurraldeko
garapen jasangarria*

NORI

- > Eskualdeko pertsona fisikoak
- > Bizilagunen komunitateak
- > Alokairuko sustatzaileak

GURE ESKAINTZA

- > Etxebizitza eta eraikuntzen zaharberritzea
- > Inguratzaile termikoen hobekuntza
- > Oztopo arkitektonikoak ezabatzea

NOLA

- > Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzak %50 erainokoak
- > Elkarlana eta laguntza egokituta

BAITA...

· Etxebizitza publikoen sustapena

· Alokairu Poltsa

· Hirigintza

· Garapen jasangarria

· Lurzoru industriala

LEITZA / BAZTAN-BIDASOA / ESKUALDE BULEGOA

INFORMAZIO GEHIAGO
www.vivienda.navarra.es



LEITZA

Leitzako udala - 948.510.009

DONEZTEBE/SANTESTEBAN

Mercaderes 6 - 31740 Doneztebe/Santesteban
948.456.103 - baztan-bidasoa@nasuvinsa.es



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Igogailuen instalazioak. Multimarka mantentze-lanak eta erreformak.

T. 948 232 400
www.inelsazener.com

Larreta Lanak S.L.
IGELTSU PROIEKTUA
PLADUR LANAK

Bera - Nafarroa
larretaigeltsua@gmail.com
larretalanak.com

Gorka Arretxea 627 225 514 Juanen Saralegi 637 921 299

Gestel



TELEKOMUNIKAZIOAK
ANDONI LASAGA APEZTEGUIA
T. 637 40 86 40 · 31780 BERA
andonimatxako@gmail.com

- ▶ TDT instalazioak
- ▶ TB instalazioak (satelite, lurrekoak)
- ▶ Instalazio indibidualak eta kolektiboak
- ▶ Satelite bidezko interneta
- ▶ Internet konexio simetrikotik ultralastera

EZKAIN eraikuntzak S.L.



Lizarraga, 3 • LEITZA
M. 650 910 868 • 650 910 867
T/F. 948 610 956 • 948 610 956
ezkain1@gmail.com

ETXEAK ZAHARBERRITZEKO LAGUNTZAK | 2018ko datuak

2018: ETXEBIZITZEN ZAHARBERRITZE ESPEDIENTEAK

Herria	Espedient. kop.	Etxebizitz. kop.	Aurrekontua	Diru-laguntza
ARANO	0	0	0	0
ARANTZA	1	2	92.360,170	13.739,24
ARESO	0	0	0	0
BAZTAN	27	71	946.196,05	306.373,16
BEINTZA-LAB.	0	0	0	0
BERA	8	38	498.575,32	198.36,29
BERTIZARANA	2	2	10.332,63	1.637,44
DONAMARIA	3	3	208.480,98	55.876,62
DONEZTEBE	3	11	81.119,93	35.102,10
ELGORRIAGA	1	1	5.841,00	2.628,45
ERATSUN	1	1	29.161,26	13.167,57
ETXALAR	1	1	12.428,23	5.592,70
EZKURRA	0	0	0	0
GOIZUETA	1	1	39.611,90	3.961,19
IGANTZI	3	3	76.510,74	24.045,17
ITUREN	1	1	13.926,00	6.266,70
LEITZA	8	68	1.249.533,19	400.885,46
LESAKA	14	55	925.638,57	379.013,80
OIZ	0	0	0	0
SALDIAS	0	0	0	0
SUNBILLA	7	13	268.310,36	84.496,98
URDAZUBI	2	2	95.692,38	39.772,32
URROZ	0	0	0	0
ZUBIETA	1	1	44.107,55	16.454,51
ZUGARRAMURDI	1	1	9.421,45	4.239,65
Denetara	85	275	4.566.036,67	1.576.467,27

2018an 1.576.467 euro hartu ziren etxeak zaharberritzeko, 2017an baino %56 gehiago. Aurten, urriaren 1a bitarteko datuen argitara, jarduera %24 igo dela nabaritu dute Nafarrovinsak Donezteben duten bulegoan, 2018ko epe berarekin konparatuta.

Etxeak zaharberritzeko dirulaguntzek %56 egin dute goiti 2017tik 2018ra

Laguntza eskaerak urte osoan egin daitezke baina beti, obra hasi baino bi hilabete lehenago, gutienez

2017ko datuekin konparatuz tramitatu den espediente kopurua jaitsi bada ere, jarduera mantendu dela erran daiteke, onuradun izan diren etxebizitza kopuruari zein aurrekontuari dagokionez.

ESKATZAILE IZATEKO BALDINTZAK?

- Etxebizitza ohiko bizitoki iraunkorra izatea.
- Etxeak 25 urte baino gehiago izatea, pertsona desgaituentzat egokitzeko edo derrigorrezko arau teknikoak betetzeko baldin bada salbu.
- Obraren aurrekontu babesgarria etxebizitzako 2.000 eurotik gorakoa izatea.
- Obrak hasi gabe egotea. Behin-behineko kalifikazioa egiten denetik, obra sei hilabeteko epean hasi eta 36 hilabeteko gehienezko epean bukatzea da.
- Etxeak 50 urte baino gehiago duenean, beharrezkoa da EETA izatea (Eraikinak Ebaluatze-ko Txostena).
- Eskatzailearen diru-sarreraren, adinaren eta etxearen antzinatasunaren arabera emanen da dirulaguntza.

Nafarrovinsak tramitatzeko dituzten BAZTAN, BERTIZARANA, BORTZIRIAK eta MALERREKAN etxeak zaharberritzeko laguntzak

948 456 103 DONEZTEBE

Arano, Areso, Goizueta eta Leitzakoek, aldiz, Sakanako Mankomunitatera deitu behar dute (EZABU)

948 464 867 LAKUNTZA

DIRULAGUNTZAK ZERTARAKO?

Dirulaguntzak bizitokiaren barneko obrak egiteko eta etxearen elementu komunitarioak (teilatua, eskailera, fatxada...) zaharberritzeko izaten ahal dira:

- Etxearen egitura edo funtzionamendua egokitzeko (teilatua, fatxadak, igogailua, elektrizitatea, iturgintza,...).
- **Eraginkortasun energetikoa hobetzeko** (isolamenduak, berokuntza sistema jarri edo aldatu, galdara edo leihoak aldatu...).
- **Irisgarritasuna hobetu eta trabak kentzeko** (elbarriendako eta adinekoen oztopoak...).
- **Bizigarritasun baldintzak hobetzeko** etxe barneko obrak (bainera kendu eta dutxa jartzea, hodiak eta txorrotak aldatzea...).
- Etxeetan bizitzeko egokia den azalera handitzeko (120 m² erabilgarri arte) eta etxebizitzak egiteko, lehendik dauden etxebizitza handiak zatituz.
- Indarrean dauden lege eta araudietara egokitzeko.
- Etxea desgaitasunen bat duten pertsonentzat egokitzeko dirulaguntza bereziak daude.

BIZILAGUNEN KOMUNITATEAK

Dirulaguntza bolumenik handiena urte batzuk dituzten etxebizitzetan **igogailua jarri eta traba arkitektonikoak kentzeko, leihoak aldatzeko eta berokuntza sistema efizienteagoa instalatzeko** izaten dira.

BIZIGARRITASUN-ZEDULA GEHIAGO URTETIK URTERA

Etxe eta pisuen salmenta kopurua igotzen ari da urtetik urtera. 2017an Nasuvinsak Donezteben duen bulegoaren bitartez 59 zedula eman ziren: 24 Baztanen, zortzi Beran, zazpi Lesakan, sei Donezteben, bina Arantzan, Eratsunen, Iturenen, Sunbillan eta Zugarramurdiran, eta bana Bertizaranan, Igantzin, Elgorriagan eta Beintza-Labaieren. 2018an, urria bitarte 60 bizigarritasun-zedula eman dira dagoeneko.

Datuak:

Nasuvinsa eta Sakanako Mank. (EZABU)

Igogailuak instalatzeko eta leihoak aldatzeko eskatzen da dirulaguntza gehien.

Bizilagunen komunitateetan igogailua jartzeko eta traba arkitektonikoak kentzeko, leihoak aldatzeko eta berokuntza sistema eraginkorragoak instalatzeko izaten da dirulaguntzen bolumenik handienak.

Urtetik urtera bizigarritasun-zedulen eskaerek goiti egin dute: 2015ean 26, 2016an 32, 2017an 59 eta 2018an 60 urria bitarte. Horrek adierazten du notariako salerosketa kopurua handitu dela azken urteotan.



GAZMENDI

ERAIKUNTZAK

DONIBANE KARRIKA
GURE BORDA • SUNBILLA
T. 948 450 130 - 948 451 666
M. 619 469 784



**CONSTRUCCIONES
A. BENGOTXEA**

- Etxebizitzak egin
- Zaharberritze lanak
- Saneamentuak
- Obra publikoak
- Zeramika denda

URDAZUBI

Tel. 948 599 166 www.carrelagesbengotxea.com

sasoi

eraikuntzak

Leku-eder, 16
31791 SUNBILLA (NAFARROA)
T. 948 451 596 | F. 948 456 168
info@sasoi.es

mitxel **etxenike etxandi**
javier **oteiza larretxea**



EFIZIENTZIA HAUNDIKO ERAIKINETAN ADITUAK

linoplazaarkitektura



jaime urrutia 36 - 31700 elizondo (nafarroa) telf. 948 58 18 02 fax. 948 58 14 12 e-mail. info@linoplaza.com web. www.linoplaza.com

helvetia
ASEGURUAK

- Tratu pertsonala
- Zure beharrianak asetzeko
- Kompromisoa eta segurtasuna
- Pertsona erabakigarriak



T. 948 45 25 29 · 628 35 71 38
Santiago, 78 - ELIZONDO · jfagoagaleiza@gmail.com

ASEGURUAK

Ongi babestu, ezustekoa bikoitza izan ez dadin



Estalduren txostena ongi irakurri, etxeko ondasunen balioa zehaztu eta aseguruak barne hartzen duela jakintzat jo ordez egiaztatzea komeni da

Mamia bezain garrantzitsua izaten da azala eta etxe aseguruetan ere, biak babestu behar dira. Mamiak ondasun pertsonal eta materialei egiten die erreferentzia eta norberak hauta dezake horietatik zein babestu nahi dituen; azalak, berriz, etxebizitzaren egitura-elementuak hartzen ditu barrenean, eta aseguratu aitzinetik balioztatzea egitea komeni da. Estaldurak ere banan bana irakurri eta beharren arabera egokitzea komeni da. Ezbeharren bat gertatuz gero, kalte-ordaina diruz edo tresna ordezkatuz jasoko genukeen argitu beharko da. Hirugarrenen-aseguruak biltzea ere komeni da, etxeko matxurak gertatzen direnean ohikoa baita berteengan kalteak eragitea.

ANZABAL
Inmobiliaria



- Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...
- Inmobiliaria
Baserrri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria

Santiago, 15 ELIZONDO · T. 948 580 804 · anzabal@anzabal.com · www.anzabal.com

MAÑONEA 



**HAINBERTZE IZERDI KOSTATUTAKOAK,
PREST ZAUDE GALTZERA?**
Etxetan uztez baino maizago ezbeharrek suertatzen dira.
ONGI BABESTUTA ZAUDE?

**GUREGANA ETORRI ETA ETXE ASEGURUAREN
DUZUN POLIZA AZTERTUKO DUGU.**

Braulio Iriarte, 9 · ELIZONDO / T.: 948 581 132 · 606 896 843
www.mainoneaagentzia.com / mainonea@mainoneaagentzia.com

Urarekin lotutako ezbeharrek (%32), puskatutako kristalak (%19,3), laguntza zerbitzuak (%10,8), gertakari atmosferikoak (%6,9) eta lapurretak edo lapurrek eragindako kalteak (%6,7) konpontzeko laguntza dira bezeroek eskatzen dituzten zerbitzuak



MAPFRE

Konfiantza osoko aseguru-etxea

IBILGAILUAK | ETXEAK | BIZITZA ETA OSASUNA | PENTSIOAK | INBERTSIO PRODUKTUAK

BERA | **DONEZTEBE** | **ELIZONDO** | **LEITZA** | **LESAKA**
Bidassoa, 16 T. 948 63 10 14 | Nagusia, 2 T. 948 45 08 80 | J. Urrutia, 8 T. 948 58 03 76 | Elgoien, 6 T. 948 51 04 99 | Pl. Zaharra, 28 T. 948 63 72 20

IKERKETAK



Arazoei aurre hartzeko bidea

Azterketa geologikoak eta hidrologoak funtsezkoak dira proiektu baten bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa neurtzeko

Oro ez da urre eta itxuraz egokia zirudien lursailak ezusteko bat baino gehiago gorde dezake izkutuan. Eraikuntza arloan, ezusteko horiei ahalik eta tarte tikierna uzteko lanean ari dira hainbat profesional; arazoei aurre hartzeko bidea eginez. Azterketa geotekniko eta hidrologoak dira proiektu bat teknikoki eta ekonomikoki bideragarria ote den neurtzeko bitartekorik eraginkorrenetako bat. Non eraiki behar den jakitea funtsezkoa baita nola eraiki jakiteko.

Lur-geruzak eta lur-azpiko materialen ezaugarriak eta portaera neurtzen dituzte ikerketa geoteknikoen bidez. Azterketa hidrologoaren bidez, berriz, luraren eta lurpearen iragazketa-ezaugarriak, inguruko ur-emariak eta isurketa-uren maila. Azterketa horiei esker, eraikuntza-lanak lursailaren ezaugarrietara egokitzen dituzte. Horrela, eraikuntza fasean edota eraiki ondotik sor daitezkeen arazoei irtenbidea ematen zaie hasiera-hasieratik.

Zein da arkitektoen egitekoa?

Arkitektoa eraikuntza prozesu guztiaren ezagutza globala eta integratzailea duen profesionala da.

- Ikuspegi estetiko zein funtzionala kontuan hartuta bezeroari irtenbideak emanez, proiektuak garatzen saiatzen dira.
- Obran esku hartuko duten gainerako profesional guztiak koordinatu eta aldez aurretik onartutako epeak eta aurrekontuak errespetatzen direla gainbegiratzen dute.

LABORRA ARKITEKTOAK

- Gabriel & Ines -

Santiago 66, 1º - Elizondo - 948 580 122

- Etxebizitza berriak
- Zaharberritzeak
- Hirigintza
- Ziurtagiri energetikoak
- Eraikinen Ebaluazio Txostenak (EET/IEE)

www.laborra.com



IKERKETA
Geologikoak
Geoteknikoak
Hidrologoak
Ingurumenakoak

Zimentazioak • Lur azpiko urak
Ezponden egonkortasuna • Zabortegeiak

Xalbador Kalea, 28 - 31700 ELIZONDO (BAZTAN)

620.796.005 - ph.gamoy@yahoo.com

GEEA

ESTUDIOS GEOLÓGICOS

IKERKETA GEOTEKNIKO ETA HIDROGEOLOGIKOAK
edozein eraikuntzarako zimentatzeak,
eraikuntza zibila, lurpeko urak, ingurugirtoa
www.geea.es

696 435 907 • 606 507 335



- PROIEKTU ARKITEKTONIKOAK
- OBRETAKE LAGUNTZA TEKNIKOAK
 - Industria eta merkataritzako eraikuntza eta instalakuntza.
 - Obra zibila
 - Etxegintza
- TOPOGRAFIA ETA GEOMATIKA
- INSTALAZIO ETA ERAIKINEN MANTENTZEAREN KUDEAKETA
- KONSULTAK, TXOSTENAK, PERITAZIOAK

ENIK

Garaialde etxea - ELBETE-BAZTAN
T. 948 580 988 - 619 462 665 - amartin@atnafarroa.org

- LOKALEN EGOKITZEAK
- ERAIKUNTZA BERRIAK
- ZAHARBERRITZEAK
- BARNE DISEINUA
- AHOLKULARITZA
- PASSIVE HOUSE
- TEILATUAK BERRITZEKO SEGURTASUN ESTUDIOAK
- KALIFIKAZIO ENERGETIKOAK, ...



IRURITA

DOARQ
arkitektura bulegoa
maite & idoia danboriena olaetxea
T 9 4 8 1 4 0 8 0 6

OBRA-LIZENTZIAK

Nola jakin obra handiko edo obra txikiko lizentzia eskatu behar duzun?

Eraikuntza-lan edo eraberritze bat egin aitzinetik obrako lizentziak eskatu behar izaten dira. Obra handiko lizentzia edo obra txikikoa eska daitezke eta jende gehienak ez daki argi zer desberdintasun dauden bien artean. Honela laburbil daiteke:

Obra handiko lizentzia:

Oin berriko obra eta, oro har, eraikuntza baten egitura ukitzen edo fatxada-teilatuak aldatzen dituzten handitze-, aldatze edo eraberritze-lanak eta urbanizazioko obrak egiteko behar den lizentzia da. Adibidez, etxe berri bat eraiki, fatxadan leihoak ireki edo espazioen banaketak aldatu behar direnean karga-hormei eta zutabeei eragiten badie. Eraikin baten erabilera aldatzen denean, lokal bat etxebizitza bihurtzen denean adibidez, obra handiko lizentzia eskatu behar da.

Obra txikiko lizentzia:

Eraikuntza edo instalazioaren egitura ukitu ez eta lurraren edo lurrazpiaren okupaziorik ez dakarten obra guztiak egiteko behar den lizentzia da. Aurrekontu txikiko lanak izaten dira: sukaldeko paretak eta zorua eraberritzea, komunetako estaldurak eta komunak aldatzea, zoruak aldatzea, margo-lanak edo trenkada aldatu edo kentzen bada ere bai.



Oiartzabal
arkitektoak

Ipar karrika, 15
31780 BERA
T. 948 630 304 • 627 955 349



MAITE MANGADO
ARKITEKTURA & DISEINUA

T +34 653 035 091 | www.maitemangado.com

Obretarako udal-lizentziaren tasa aurrekontuan aitortutako zenbatekoaren %5 ingurukoa izaten da. Hondakinak kudeatzeagatik ere fidantza jarri behar da eta udalak agindutako zabortegian egin dela egiaztatzean bueltatzen da



arteka

ARKITEKTURA ZERBITZUAK

www.artekabaztan.com

Balda Medikua Plaza, 1-1A | 31700 ELIZONDO
948 580 610



Baztan-Bidasoko lehen Passivhaus eraikin ziurtatua



«Egungo etxebizitzaren osasun-arazoak. Osasungarriak al dira gure etxeak?»

Ohiko eraikuntza-metodoak hainbat alderditan izan duen bila-kaera ukaezina da, adibidez, energia-efizientziari edo materialen kalitateari dagokienez. Hala ere, nolabait kezkarria iruditzen zaigu etxe berrien eraikuntzak oso kontzeptu garrantzitsu bat aintzat ez hartzea: bizilagunen osasuna.

Funtsezko gai bat da; izan ere, gure inguruan alergien eta bestelako gaixotasunen gero eta kasu gehiago ditugu (arnasketarazoak, bihotzeko gaitzak, logalea, migrainak, etab.). **Askotan, gaixotasunen bat agertu edo larritzen zaigunean, ahaztu egiten zaigu gure etxebizitzak eragin handia duela horretan.** Hala, gero eta gehiago hitz egiten da eraikin gaixoaren sindromeaz, hau da, bizilagunak gaixotzen dituzten eraikinez.

Baliteke etxebizitza berri bat, A edo B energia-efizientziaren ziurtagiria edukien arren, gaixo egotea, orientazio txarra duelako edo kanpotik zorritzarez kutsa-

tuta dagoen airea sartzen delako, aireztapen-beharrengatik jarri den aire-sarreraren bitartez.

Lehenik eta behin, etxeko bizilagunok kutsatzen dugu gutxika barruko airea, gure arnasketa-sistemaren bidez eta erabiltzen ditugun materialen higaduraren eta produktuen bitartez (alfonbrak, altzariak, garbiketa-produktuak, etxetresna elektrikoak...). Geu konturatzen gara askotan etxeko giroa «kargatuta» dagoela. **Egoera horretan, egungo etxebizitzek irtenbide bakarra eskaintzen dute: leihoak zabaldu, eta etxea «aireztatzea».** Hala, etxebizitza aireberritu dugula uste izaten dugu.

Hori, baina, ez da egia; izan ere, etxera zikinkeriaz betetako airea sartzen ari gara: hautsa, akaroak, lizuna, polena, kutsatzaile kimikoak, CO₂a, etab.

Arazo horri aurre egiteko irtenbidea hiru printzipio nagusitan oinarritutako etxebizitza efizienteak eraikitzea da. Hauek dira printzipio horiek: hermetikotasuna, isolamendua eta aire garbia

ekartzen duen etengabeko aireztapen-sistema. **Passivhaus estandarraren arabera eraikuntzak hiru printzipio horiek ziurtatzen ditu.**

Passivhaus estandarrak ziurtatzen du etxebizitzak etengabe aireztatuta daudela. Horretarako, guk kutsatutako barruko airea xurgatu, eta kanpoko aire garbia ematen duen bihotz artifizial bat erabiltzen du, eta giro osasungarria eta ongizate optimoa lortzen du. Leihoak irekitzea aukera bat da, noski, baina ez da beharrezkoa izango.

Passivhaus etxebizitzetan ia ez da hautsik, akarorik, lizunik edo hezetasun problematikorik agertzen. Gainera, berokuntzaren kostua, ohiko etxebizitzekin alderatuta, % 80 txikiagoa da, eta ingurumen-jasangarritasuna lortzen laguntzen du.

Passivhausen alde egiteko ordua da; ingurumenaren, energia-aurrezpeneren, osasunaren eta etxeko ongizatearen alde egiteko ordua.



PASSIVHAUSS ETXEAK LEITZAN

- Babesturiko etxebizitzaren salmenta zuzena.
- Hiru logelako azkeneko bi etxebizitzak salgai.

Informazioa eta erreserbak: 609 130 555

zeramikaren Benta


venta du carrelage

asteartetik ostirala arte:
09:00-12:30 / 14:30-19:00

larunbata:
09:00-12:30 / 13:30-18:00

Lori venta
31710 | Zugarramurdi
Tel.: 00 34 948 59 90 24
Mug.: 0033 615 11 52 23
info@ventaducarrelage.com
www.ventaducarrelage.com

ZERAMIKA



Material bat, milaka aukera

Iraunkorrak eta kalitatekoak diren produktuen aldeko apustua egiten dute kontsumitzaileek eta bi baldintza horiek ezin hobeto betetzen ditu zeramikak. Horma eta zoruak janzteko orduan aukera ohikoenetako bat da eta geroz eta gehiago dira egongela, logelak edo etxebizitzako bertze espazioak janzteko ere material hau aukeratzen dutenak. Material gogorra izateaz gain, gutxieneko zaintza eskatzen du, instalatzeko erraza da eta bertze material batzuekin primeran ezkontzen da. **Formatu, kolore, akabera, tamaina eta balizko milaka konbinazio** daude merkatuan eta horregatik zeramika erabiltzeko muga bakarra irudimena izanen da.

ALMACO BAZTAN

GRUP GATTIA

www.almacobaztan.com



Errepide nagusia, Elizondo

Tel. 948 580 104 Fax. 948 581 857



MENDI BigMat TXURI

Leitzako Bidea, 39 • 31740 DONEZTEBE • T. 948 45 03 05 F. 948 450 068 • www.menditxuri.com





IGELTSERITZA ETA ZURGIN LANAK

ESTRUKTURAK
TEILATUAK
FATXADAK
ZAHAR BERRITZE LANAK

Tel.: 661 735 052 • ARANTZA • SUNBILLA



Berriozar 19.
2. solairua - 41. bulegoa
31013 Antsoain (Nafarroa)
info@apezetxeanaiak.com
T. 948315200
www.apezetxeanaiak.com



ZABALA eta GOIKOETXEA
ERAIKUNTZAK

Gure Ametsa GOIZUETA
T/F: 948 51 42 28
M. 679 47 98 93 · 679 47 98 78



Construcciones
URBALLO, s.l.
hargin lanak orokorrean

Luis Gaztelu, 6
31730 IRURITA
T. 610 367 000
610 367 009
c.urballo@hotmail.com

- 30 urteko esperientzia
- Eraikuntza berriak eta zaharberritzeak
- Teilatueta esperientzia handiko profesionalak
- Obra txikiak nahiz handiak:
Etxebizitzak, nabeak, zangak, ur lanak, ukuiluak...
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe!



JAVIER IBARRA

ERAIKUNTZAK
Gremioen koordinazioa
Mota guztietako igeltseritza lanak

T. 699 122 815 · 31791 - SUNBILLA (Nafarroa)

- Etxe bizitza berriak
- Zahar berritzeak
- Erreformak
- Teilatuak
- Komun eta sukaldeak
- Lur zorruak
- Harri lanak orokorrean
- Hormigo lanak



LOHITZYNE
eraikuntzak

ETXEAK, TEILATUAK eta
ERAIKUNTZAK OROKORREAN



Tfnoa: 948 615 110 | Mug: 699 461 386
Eguzkialde etxea 31749 EZKURRA

ETXEGILEAK



Harria: eskualdeko etheen bereizgarria

Eskualdeko etxeetan errepikatzen den material bat bada, harria da hori. Erabilera aunitz ditu: etxeko paretak, sarreretako arkuak, pareta edo leihoetako izkinak janzteko erabil daiteke eta baita etxe-ingurua babesteko harri-paretak egiteko ere. Kanpoan ez ezik, barrenean ere diseinuko elementu bezala indarra hartzen ari da: tximinia inguruak, hormak... apaintzeko erabiliz.

Granittoa, gneisa, hareharria, kaliza, marmola, arbela eta pizarra dira gehien erabiltzen direnak. Material naturalak izanik, eraikuntzan erabili aitzinetik landu egin behar izaten dira: harrobietatik erauzi, moztu, landu eta leundu.

ANTZUZELAI
S.L.

BERA
T. 948 63 13 17
info@antzuzelai.com
www.antzuzelai.com



HARGINTZA | FATXADAK | TXIMINIAK
ZOLAK | TAILLA ARTISTIKOAK | OBRAK

Oharriz Auzoa z/g - LEKAROZ
T.948 452 143 - 948 452 449
info@harrilan.com
www.harrilan.com



EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU



BAITA ERE HORMIGOI INPRIMATUA



Martin Tellechea
Tel.: 649 403 320
betilansl@gmail.com
EZKURRA



HARROBIA, GARRAIOAK,
ESKOLLERAK, ESKABAZIOAK
ETA ERAIKIN BOTATZE LANAK



Oronoz Frantzia errep. N-121-B. 43km Baztan - T. 948 592 111 / 660 501 584 | canterasaskape@gmail.com



MENDEBERRIA
eskabazioak S.L.




GARRAIOKO OPERADOREAK
KAMIOIAK TRAKZIOAREKIN ETA BAINERA

trans-amalur S.L.
garraioak

LEKU EDER 13 - 31791 SUNBILLA

675 266 027 (ANDONI) 657 580 551 (JUAN LUIS)
BULEGOA 948 450 108 - 672 098 384



JUANJO MIHURA
IGELTSERITZA-ALBAÑILERÍA-MAÇONNERIE

ERAIKUNTZA OROKORREAN

Urbide Etxea
31710 Zugarramurdi
Nafarroa

T. 0034 607 750 425
T. 0033 674 725 680
j.mihura@hotmail.com

LABIAGA
eraikuntzak

GREMIOEN KOORDINAZIOA

IMANOL 608 117 634 |
XATUR 608 117 635 |

BERA | ELIZONDO

ETXEGILEAK

Hasieratik bukaerara, tarteko buruko minik gabe

Aurrekontuak eskatu, dokumentazioa osatu, gremioak antolatu eta lanen jarraipena egiten dute eraikuntza-entresa zein arkitektoek

Gobierno de Navarra





Azaroaren 25ean, 12:00etan, elkarretaratzea egingen dute Elizondoko Foruen Plazan. ONDIKOL

Azaroaren 25aren bueltan antzerkia eta elkarretaratzea

Elizondon 'Alu ulu' antzerki-foroa izanen dute eta Iruritan 'Tomiris' antzezlanaren izanen da ikusgai

TTIPI-TTAPA

Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harirat, Baztango Udaleko Berdintasun Batzordeak antolatuta, hainbat ekitaldi izanen dituzte azaroan Baztanen. Ekitaldiak hilaren 25eko manifestazioarekin borbilduko dituzte.

'Alu ulu' antzerki-foroa Elizondon

Azaroaren 19an Elizondoko Arizkunenea kultur-etxean, 19:00etan, dute lehendabiziko hitzordua. Bertan, Emakumeen sexualitatea umoretik, onarpenetik eta plazeretik plazaratzeko tresna gisa ikusarazten duen *Alu ulu* antzerkia ikus-

teko aukera izanen dute. Horren helburua, «norbere buruarekiko tratatu onak, harremanak, plazera... erdigune izatea» da.

Biharamunean, hilaren 20an, antzerki bera Lekarozko institutuko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako ikasleendako eskainiko dute (kasu honetan, ez da publikoari irekia izanen).

'Tomiris' antzerkia Iruritan

ATX Teatroaren eskutik, *Tomiris* ikuskizuna izanen da azaroaren 24an, 19:00etan, igandean, Iruritan Damaso Zabalza Gizarte Bilgunean. Bientzia matxista ardatz duen eta errealitatea eta fikzioa uztartzen dituen «istorio gordin

bezain sentsuala, erreal bezain fantastikoa, zorrotz bezain zolia» ikusteko aukera izanen dute. Sarrera dohainik izanen da.

Elkarretaratzea eta manifestazioa Elizondon

Ekitaldiak azaroaren 25ean, Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Egunean, akituko dituzte. Astelehen eguerdian, 12:00etan, elkarretaratzea egingen dute Elizondoko Foruen Plazan. Arratsalderako, berriz, manifestazio burrunbatsua antolatu dute. 19:30ean abiatuko dira Foruen Plazatik eta herritar eta ingurukoei aldarrikapenekin bat egin eta parte hartzeko gonbidapena luzatu diete.

ferreteria Quevedo

**TXERRI HILTZEAN
ERABILTZEKO TRESNAK**

Santiago 31 · ELIZONDO · Tel.: 948 580 234 · www.ferreteriaquevedo.com

Lekarozko ZaKill taldeak lehendabiziko diska grabatu du

Azaroaren 16an aurkeztuko dute eta hori aitzakiatzat hartuz kontzertu-bira antolatu dute

TTIPI-TTAPA

Lekarozko ZaKill taldeak *Itzala* izeneko diska grabatu du eta azaroaren 16an kaleratuko dute. Hori aitzakiatzat hartuz, kontzertu-bira bat egiten ari dira. Lehendabiziko bi kontzertuak hilaren 2an eta 9an eskaini zituzten, Uztaritzen

eta Arazurin. Hurrengo azaroaren 23an izanen dute, Sarako gaztetxean. Hondarreko larunbatean, 30ean, berriz, Zubietan bilduko dira. Kontzertuek abenduan izanen dute segida. Herrian bertan ere geldialdia egitea aurreikusi dute, abenduaren 14an.

Arteka proiektua martxan Baztango liburutegi publikoan

Baztango artistek egindako artelanak erakusteko edota mailegatzeko, Arteka proiektua martxan da Baztanen. Bertako bizitza artistikoa eta kulturala bultzatzeko, Nafarroako liburutegi publikoan txartela dutenek lanak mailega ditzakete (30 egunez).

Ana Gonzalezen margolana 0450 zenbakiarentzat

Urtero bezala, Xaulik urriaren 26an, ferietako larunbatean, margolan bat zozketatu zuen. Aurten Ana Gonzalez margolariak emandakoa izan da eta 0450 zenbakia izan da saritua. Margolana jasotzeko harremanetan jarri behar da: 948 58 14 58/ 606 16 04 55.



ONDIKOL

Udaberriko feria jendetsua

Urriaren 25ean egin zuten udaberriko ferian jende dezente bildu zen Elizondon. Guztira 500 batazienda buru plazaratu eta karrketan 250 postu inguru paratu zituzten. Ortziralean paratutako postuak larunbatean erretiratu zituzten eta *atsoferiek* ere, ikusmira handia eragin zuen.

Abesbatzaren kontzertua azaroaren 24an

Elizondoko abesbatzak antolatuta, kontzertua izanen dute azaroaren 24an, hondarreko igandean. Herriko parrokan zehaztu dute hitzordua eta aditu nahi dutenek 13:00etan bertaratu beharko dute. Aho-tsa landuz, kanta gustagarriak prestatu dituzte.

Artantxuriketan taldea hilaren 17an Elizondon

Aranoko Maria Jesus Zugarramurdi eta Ansa ahizpek osatutako Artantxuriketan taldeak kontzertua eskainiko du azaroaren 17an Elizondoko Arizkunenea kultur etxean. 19:00etan hasiko da saioa eta doan izanen da (xehetasunak 745.zenbakian).




- Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...
- Inmobiliaria
Baserri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria

Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

MARMOLES SOULE

LAPIDAK
PANTEONAK
KANPOSANTUAK
HARRI LANAK
ESKULTURAK

www.marmolessoule.com

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ
T. 948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com



EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU



BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE

Musikarien hitzordu handia azaroaren 19an Elizondon

Eguraldia lagun bada, karrikaz karrika ibiliko dira; euria eginez gero, berriz, musika-eskolan bilduko dira

TTIPI-TTAPA

Baztango Udal Musika Eskolako ikasle eta irakasleek urteroko hitzordua izanen dute azaroaren 19an, heldu den asteartean. Santa Zezilia eguna aitzakiaz hartuz, Elizondoko karrikak musikari eta musikazalez beteko dira.



Zahar-etxetik plazara

Zahar-etxea izanen dute bilgune eta arratsaldean, 17:00etan, zehaztu dute hitzordua. Eguraldia lagun bada behintzat, bertatik abiatu eta elkarrekin plazara joanen dira,

karrikaz karrika tresnak astindu eta ingurua alaituz. Euria egiten badu, berriz, musika-eskolan elkartuko dira. Batean edo bertzean izan, giro bikaina izanen dute.

Arizkondar batek irekitako okindegia Mexikoko zaharrena

MXCityren arabera, 1870 inguruan Marcelino Zugarramurdi arizkundarrak irekitako La Vasconia okindegia egun zabalik dagoen Mexikoko zaharrena da. Laster 150 urte beteko ditu.



MXCITY

Landa Begiradak saioak borobiltzeko mural-margotzea larunbatean Elizondon

TTIPI-TTAPA

Udalaren, Hazitik Hozieren eta Energia Onaren eskutik, bigarren urtez, Landa Begiradak gogoetaldian murgilduta dabilza baztandarrak. Aurten klima larrialdia eta krisi ekososziala izan dituzte hizpide: azaroaren 8an Jeune Bergère

artzain gaztearen filma pantailaratu zuten; biharamunean, *En la espiral de la energía* liburua egileetako batekin bildu ziren. Jardunaldiak azaroaren 16an, akituko dira 'Sistema aldatu, ez klima' mural-margotzarekin. 11:00etan frontoi zaharrean bilduko dira.



Iker Elozegi izanen da hizlari. UTZITAKOA

Mendiko suei buruzko hitzaldia azaroaren 22an Elizondon

TTIPI-TTAPA

Joan den urtean 444h. erre ziren baimenik gabe Baztanen. Erreketa horiek kalte eta arrisku dezente eragin zuten: sua etxe baten ondora ailegatu zen eta egur pila erre zen; Ikastolako haurren hariztia kaltetu zen... Halakoak saihesteko eta herritarrak kontzientzi-

tziatzeko, Udalak antolatuta, 'Mendiko suak: ingurua iraunkorki kudeatzeko tresna? Gerorik gabeko iraganeko ohi-tura?' solasaldia izanen dute azaroaren 22an, 11:00etan, Elizondoko Arizkunenean. Laborantza Ganbarako koordinatzaile den Iker Elozegi izanen da hizlari.

Ana Mari Marin margolaria omendu dute

Blanca de Navarra Emakumeen Elkarteak Ana Mari Marin omendu zuen urriaren 26an. Margolaritzan ez ezik, bertze hamaika alorretan egindako ibilbidea goraiatu zuten.



F. ANBUSTEGI

Jarduera ekonomikoaren gaineko zerga ordaintzeko epea zabalik

TTIPI-TTAPA

2019ari dagokion jarduera ekonomikoaren gaineko zerga ordaintzeko borondatezko epea zabalik da azaroaren 27ra arte. Helbideratuei hilaren 27an pasatuko zaie ordainketa horiek egiteko emandako banketxeko kontura. Helbi-

deratua ez dutenek, CaixaBank edo Caja Rural banketxeetan egin beharko dute, Udalak postaz bidaliko dien ordain-giria aurkeztuta. Hori jaso ezean, udaletxeko bulegora jo dezakete. Borondatez ordaintzeko epea pasatuz gero %5eko gainordaina ezarriko zaio.

Estresari aurre egiteko tailerra Elizondon

Saioak azaroaren 20an eta 27an izanen dira, 10:00etatik 13:00etara

TTIPI-TTAPA

Estresari eta antsietateari aurre egiteko sei orduko tailerra eskainiko dute azaroaren 20an eta 27an, hurrengo bi asteazkenetan, Elizondoko osasun etxeke Erabilera Anitzeko Aretoan. Saioak 10:00etan hasiko dira eta 13:00 arte izanen dira.

Helburua

Tailerren helburua estresa zer den eta zerk sortzen duen jakitearekin batera, erlaxatzeko teknikak ikasi eta praktikatzea dira. Horrela bada, aldaketak

plansatzeko eta tentsio gutxiago nola sortu jakiteko edota sortutakoak kanporatzeko estrategiak jorratuko dituzte.

Izen-ematea

Tailerri buruzko informazio gehiago eskuratzeko 948 58 1832 telefonora deitu edo Mila Perez erizainarekin solas egin daiteke. Izena emateko, berriz, telefono horretara deitu edo osasun etxeke harreran jakinarazi behar da. Parte-hartzaile kopurua mugatua da eta hori bete arte eman daiteke izena.

Giltxaurdi futbol-zelaiko belarra aldatzen ari dira

TTIPI-TTAPA

2014ko uholdeek kaltetutako Giltxaurdi futbol-zelaiko belarra aldatzen ari dira. Bartzelonako Sports&Landscape enpresa ari da lanean eta guztira 165.049,02 euro inguru kostako da. Nafarroako Gobernuko Kirol eta Gaztediaren

Institutuak 120.000 euroko dirulaguntza eman du. Gainerakoa, Udalak ordainduko du. Azaroaren 22rako, ortzilerako, akituko dutela aurreikusiko dute eta bitartean Baztan Futbol Taldeko hamai-kaldek etxetik kanpo jokatuko dituzte partida guztiak.



JUAN MARI ONDIKOL

Johana Soldevillaren margolana irabazle

2017an ere garaile izan zen Bianako Johana Soldevillak irabazi zuen azaroaren 3an Elizondoko Kasinoak Jose Mari Apezetxea zenaren omenez antolatutako margo lehiaketa (800 euro jaso zituen saritzat). Bigarren saria (400 euro), Eduardo Alsasua gasteiztarrantzat izan zen.



TESTUA ETA ARGAZKIA: MAITANE MARITORENA

Gau beltzaren tradizioa argitu dute Anizen

Urriaren 31n gau beltza ospatu zuten Anizen. Herriko gaztetxoak etxez etxe ibili ziren, buztinez egindako kalabazak banatzen. Ondotik, Xabier Zabaletaren eskutik, Anizko herritarrak ardatz, sortutako istorio eder eta beldurgarria aditzeko aukera izan zuten.

AZAROKAK

25

Emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna

Baztanen ere mugitu!

Baztango
Udala

Gobierno
de Navarra

Informatika ikasteko aukera azarotik ekainera

Oinarrizko ezagutzak eskuratzeko ikastaroa izanen da eta asteazkenetan eskainiko dute

TTIPI-TTAPA

Urdazubiko eta Zugarramurdiko Udalek antolatuta, informatika ikastaroa dute azarotik ekainera herrian.

Oinarrizko ikastaroa

Oinarrizko ezagutza eskuratzeko ikastaroa izanen da eta testuak sortzen, kalkulu-orria erabiltzen, aurkezpenak egiteko Power Point programa edota Interneteko beste hainbat kontu erabiltzen ikasiko dute. Saioak asteazken arratsaldetan dira, 19:00etatik 20:00etara, Leorlas auzoan,

eskola ondoan dagoen eraikinean eta hilabetean 35 euro ordaindu beharko dira.

Izen-ematea

Izena eman nahi dutenek, izen-abizenak eta telefono zenbakia eman beharko dituzte eta horretarako bi aukera dituzte: Urdazubiko eta Zugarramurdiko Udaletako idazkariarekin, Javierrekin, harremanetan jarri (627 93 04 98 edo 948 59 90 34 telefonora deituz) edo barneforma@gmail.com helbidera mezu bat idatzi.

Lan Gaua abenduaren 14an eginen dute

Hasieran azaroaren 9an egitekoa baldin bazen ere, Baztan-Bidasoa Turismoak antolatutako Lan Gaua abenduaren 14an eginen dute, azkenean. 18:00etan abiatuta, Beartzunen eginen dute ibilbidea, Urruskako Joxepi Mihura gidari eta erakusle dutela.

Internet-telefonian jardunbide okerrak hizpide Elizondon

Iratxe Nafarroako Kontsumitzaileen Elkartearen eskutik *Iruzurrak eta jardunbide okerrak internet-telefonoan* solasaldia eta mahai-ingurua eskainiko dute azaroaren 18an, 18:00etan Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean. Akitzean pastak hartuko dituzte.



Ainarara eta Gaineko borda tartean hetsi den bidexka. MARIFA ETA KORO

Hetsita dagoen bide zati bat berreskuratzeko haitada egin nahi dute

MARIFA ETA KORO

Urriaren 26an Atxuria mendi taldekoek Etxebertzeko bordara egin zuten ibilaldia, eta Ainarako kaskotik harago, sorpresan hartu zuten bide zati bat hetsita aurkitzea, arbola bat erdian erorita zegoelako. Ez zen berriki gertatua, ondoan bertze bidexka bat

irekita baitzegoen. Duela pare bat urte boluntario-talde batek garbitu zuen kanpamentutik Gaineko bordara doan bidexka, eta lan horretan, galdutako bide zati bat berreskuratu zuten, sasiak eta arbolak kenduz. Orain, berriz hetsi den bidea berreskuratzeko haitada egiteko asmoa dute.

Zenbait seinale eman dituzte herrian

Zenbait seinale bertikal paratu dituzte. Madaria, Olasur eta Etxarte auzoetatik herriara sartzeko karreteretan, herriaren izena duten bana eman dute. Gainera, herri bidea dela, azienda libre dagoela edo toki arriskutsua dela iragartzekoak ere paratu dituzte.



Zenbait seinale paratu dituzte.

BRIKO BAZTAN, SL
Bainuontziaren lekuan dutxaontzia jartzea
Pinturak
Fatxadak
Pladurra
Egur lakadura eta bernizadura
Birgaitzeak eta obra berriak
Lur-mugimenduak
T. 608 016 052
San Andres, 66 · NARBARTE
(Sarrera Legasatik)

asegi asesorías
Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6 31700 ELIZONDO T. 948 581 300 · F. 948 580 648
Eztegara pasealekua, 22-1 31780 BERA T. 948 631 108
Eliza Kalea, 22 31740 DONEZTEBE T. 948 450 395 · F. 948 451 304



Josu Txoperena –erdian– eta Maddi Ane Txoperena –eskuinean– bertsoan.

Taldekako Xilaba txapelketako finala larunbat honetan

'Hasta La 2toria' eta 'Ez Otoi Pentsa' taldeek lortu dute larunbatean Izturitzen jokatu den finalerako txartela

TTIPI-TTAPA

Irailaren 20an Itsasun abiatu zen aurtengo Taldekako Xilaba Txapelketa larunbat honetan, azaroak 16, arribatuko da bere azkenera eta Izturitzen jokatu den finalerakin borobilduko dute.

Finalean bi talde ariko dira lehia: alde batetik, azaroaren 1ean Baionan jokatu zen final aitzinekoan 4koplaSara taldearen aurka nagusitu zen Hasta La 2toria (Lur Renteria, Maddi Sarasua, Elixabet Etxandi, Hodei Renteria eta Leire Saskaraik osatua) eta bertzetik, biharamunean Muskildun egin

zen saioan UrruñaGo taldeari irabazi zion Ez Otoi Pentsa taldea (**Maddi Ane eta Josu Txoperena** anai-arrebek –Lesaka, Hendaia– eta Miren eta Gorka Artetxek osatua).

Izturitzeko herriko gelan jokatu da finala. Halere, ez da saio hutsa izanen. Izan ere, 12:00etan bazkaria antolatu dute eta 16:30ean lehia hasiko da. Txartelak Baionako Elkar dendan, Hazparneko Xuritea ostatuan eta Garaziko Irulegiko Irratian eskura daitezke eta erreserbatzeko Bertsularien Lagunak Elkartera ere deitzen ahal da (05 59 54 15 04).

Eskualdeko sei bertsolari gazte Iruñeko Bertso Aroa zikloan

TTIPI-TTAPA

Eskualdeko sei bertsolariak parte hartuko dute Iruñeko Udalak, Nafarroako Bertsozaleen Elkartearekin elkarlanean, antolatutako Bertso Aroa zikloan: Alazne Untxalo (Ituren), Joanes eta Xabat Illarregi (Leitza), Ekhiñe Zapiain (Bera),

Iker Gorosterrazu (Ituren) eta MaddiAneTxoperena (Lesaka). Azaroaren 5ean hasi zen Bertso Aroa, eta hilaren 26an Nafarroako Antzerki Eskolan egingen den jaialdiarekin borobilduko dute. Tarte horretan, bertso saioak, hitzaldiak, antzerkiak... izan dira.



Untxalo ezkerrean Majuelorekin kantatzen. NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Alazne Untxalok eta Irati Majuelok irabazi dute Bertsoabi Sariketa

TTIPI-TTAPA

Nafarroako bertsolari gazteei plazak eskaintzeko eta Iruñerriko publikoa bertsozaleetarako egin den Bertsoabi-Eugenio Arraiza Sariketako finala urriaren 24an jokatu zuten Iruñean eta Alazne Untxalo (Ituren) eta Irati Majuelo izan ziren txapelak. Hiru bikote aritu ziren,

hiru kanporaketetan irabazle izan zirenak, hain zuzen: Untxalo eta Majuelo; Xabat Illarregi (Leitza) eta Aitor Irastortza; eta Ekhiñe Zapiain (Bera) eta Josu Sanjurjo (Lesaka).

Sariketa 2021ean egingen dute berriz, bi urtetik behin egiten baita, Izeta Sariketarekin txandakatu.

ORBELA
SENDERISMOA ATERPETA
BEINTZAKO OSTATUA
Idoia · Mikel
Tel. 948 450 014 · BEINTZA-LABAIEN
info@orbela-beintza.com
www.orbela-beintza.com

744 484 361
ttipi-ttapa

VENTA PEIO
GEHIAGO EMATEN DIZU

BERA (administrarritza) 31780 Bera
DANTXARINEA 31712 Urdax
IBARDIN 31780 Bera
BEHOBIA 20305 Iruñ
LUZAIDE 31660 Luzaide

EGUNERO IREKIA, ASTELEHENETIK IGANDERA ARTE
Abenduaren 25 eta urtarrilaren 15an ezik

Landibar

TEL. 902 210 800 / www.venta-peio.com



Lizarietako lepoak hartuko duen itxura berria.

Lizarietako lepoko lanak fite hasiko dituzte

Bertzeak bertze, txoriak kontatzeko etxola, ibiltarientzako lehorra eta zerbitzuak ezarriko dituzte

GANEX ETXEBERRIGARAI

Badira bederlatzi edo hamar urte Herriko Kontseiluak Lizarietako lepoan hainbat obra egitea pentsatu zuela. Bada, itxura guztien arabera, proiektuarekin fite hasiko dira.

Proiektu horren barne, alde batetik, txoriak kontatzeko etxola eraikiko dute eta horrez gain, Lizarietako lepotik pasatzen diren ibiltari eta mendizaleentzako lehorra eginen dute, bertzeak bertze, zerbitzuak edo komunak izanen dituen. Zaldiekin dabiltzanek ere animaliak uzteko tokia izanen dute eta ibiltarientza-

ko bidaxken informazioa edo mapa bilduko duen panela ere paratuko dute.

Lanak egiteko behar den dirua nagusiki Euskal Hirigune Elkargoak bideratuko du eta herriko lantegiak arduratuko dira obraren zati handienaz, terrazaz izan ezik. Hargin-lanak Mikel Iriartek eta Beñat Mendiondek eginen dituzte, zurgin-lanak Peio Amestoik eta elektrizitateaz Jean Luk Soudre arduratuko da. Terrazako obra izanen da herrikanpoko lantegi batek eginen duen bakarra. Sobamat presas eginen du.

Ongi Izaite Eguna igande honetan iraganen da

Aitzineko TTPI-TTAPAN iragarri bezala, igande honetan, azaroak 17, Ongi Izate Eguna antolatuko dute. 09:00etatik goiti herriko terapeuta eta praktikanteak ezagutzeko aukera izanen da eta horrez gain, haur eta helduentzako hainbat tailer izanen dira egun osoan.

Santa Katarina besta azaroaren 24an

Igande honetan zortzi, azaroaren 24an, Santa Katarina bestak ospatuko dituzte Baratzarten. 10:30ean egin dute hitzordua; ordu horretan meza izanen dute kaperan eta ondotik, 11:30ean, aperitifa eskainiko dute hurbiltzen diren guztientzako.

Ikastolak antolatutako kantaldia

Olhain Ikastolak antolatuta, kantaldia eginen dute azaroaren 23an Lur Berri gelan. 17:00etan hasiko da. Ikasleak eta burasoak kantari ariko dira eta horrez gain, jatekoa eta edatekoa eskainiko dute. Helduek sartzea hiru euro ordaindu beharko dute.



Pilota elkarteko biltzarrean parte hartu zuten batzuk. GANEX

Ehun bat lagun bildu ditu pilota elkartearen biltzar nagusiak

G. ETXEBERRIGARAI

Buraso eta jokalarien artean, ehun bat lagun bildu ziren iragan urriaren 25ean Izarra pilota elkarteak Lur Berri gelan egin zuen biltzar nagusiak. Guy Mounho lehendakariak hartu zuen hitza eta denei ongi-etorria emateaz gainera, urte osoan egiten dituzten hitzorduen xehetasunak eman zituen.

Jakinarazi zuenez, denetara 109 pilotari ibiltzen dira elkartean, eta aurten guztira 508 partida jokatu dituzte esku huska, xisteraka, pasakan eta palantxaka. Horieta batzuk Saran jokatu dituzte, eta bertze batzuk Azkainen, Amotzeko trinketean eta Zugarramurdin. Datu gehiago ere eman zituen lehendakariak. Hala nola, 23 final jokatu dituzte eta hamahiru alditan izan dira txapelidun: zortzi aldiz Euskal

Herriko ligan eta borts aldiz Frantziako txapelketan.

Martin Bruno diruzainak, bertzetik, kontuen berri eman zuen eta positiboan dira. Hori hola izan dadin ezinbertzeak izan dira uda partean errugbi eta eskubalo elkarteekin eta dantza taldearekin antolatutako ekitaldiak, jende andana ibili baita horietan.

Gainerakoan, bulegoak berdin segitzen du. Mounhorekin batera, Patrick Mariluz da lehendakaria, Martin Bruno diruzaina eta Frantxo Pouyet eta Julie Blu idazkariak. Biltzarrean esker oneko hitzak ere izan zituzten pilota elkarteko kideek. Herriko Etxeari, pilotariei, entrenatzaileei, diruz laguntzen dieten guztiei eta gainerako boluntarioei eskerrak eman nahi izan zizkieten. Bilkura zintzur bustitzearekin eta pintxo batzuekin finitu zuten.



Ezkerrean, gizonezkoen podioa, Gure Txokoako eta udal ordezkariekin. Eskuinean, emakumeen podioa. UTZITAKO ARGAZKIAK



Errekor berria egin dute Lizuniagako Igoeran

Chakib Lachgar izan da 4,9 kilometroko proba 16 minutu baino guttiagoan egin duen lehendabiziko korrikalaria

TTIPI-TTAPA BERA

Urriaren 26an egin zen 39. Lizuniagako Igoeran, Errenterian bizi den Chakib Lachgar marokoarrak errekorra hobetu zuen. Duela 11 urte Abdelfata Louajarik jarritako marka (16.01) gaindituz, kronoa 15

minutu eta 55 segundotan gelditu zuen. Ugaldea Aholkularitza eta Zalain Jatetxeak emandako 150 irabazi zituen.

Hasieratik bere martxa hartuta, bakarrik joan zen eta gibeletik izan zituen Dimitry Martins frantziarra (16.48) eta

Xabi Martinez, iazko txapel-duna (17.46). Laugarren, Errekako Santi San Miguel done-tebarra izan zen (18.26) eta beteroetan lehenbiziko postua eskuratu zuen. Bosgarren, Beti Gazteko Beñat Saralegi lesakarra izan zen (18.27). Beteroetan hirugarren izan zen Joseba Lasarte beratarra.

Emakumeetan lehia polita izan zuten, azken lau urtetan irabazle suertatutako Lurdes Oiartzabal lezotarrak eta Berako Ane Elzaurdia Mentaberri. Azkenean gipuzkoarrak bosgarren garaipena segidan lortu zuen (22.19), eta zazpi segundoko alde atera zion Ane Elzaurdiari (22.26). Me-

lissa Hourdebaigts izan zen hirugarren (22.59). Emakume beteroen artean, Teresa Igoa beratarra nagusitu zen (27.25). Junior mailan, Berako Ainhoa Etxegarai (23.24) eta Kenai Garcia izan ziren bizkorrenak (26.00).

Beratarren artean, Gwendal Larque (19.00) eta Ane Elzaurdia (22.16) izan ziren lehendabiziko helmugaratu zirenak.

Guztira 86 partaide izan ziren helduen lasterketan eta haurren krosean 100 lagunetik goiti. Hauen artean, Batis-ta Telletxea beratarra, 39. aldiz lasterketa akitu zuena. Parte-hartzaileen %25 emakumezkoak izan ziren.

Nafarroako sokatira txapelketako lehen txapelak lortu ditu Beti Gaztek

TTIPI-TTAPA LESAKA

Nafarroako zortzinakako sokatira txapelketako lehen txapelak banatu zituzten urriaren 26an Elizondon. Gizonezkoen 600 kiloko kategorian eta emakumeen 520 kiloko kategorian Beti Gazteko tiralariak suertatu ziren txapeldun.

Gizasemeen artean, Arbuzuko lehen jardunaldian bezala, tiraldi guztiak irabazi zituzten lesakarek. Bigarren Berriozar izan zen, Txantrea hirugarren eta Antsoain laugarren. Beti Gazte talde txapelduneko zortzikotean Jose Angel Mitxele-

na, Ander Mitxelena, Mikel Apeztegia, Beñardo Iantzi, Unai Gurrutxaga, Iñigo Alzugarai, Eneko Saldias eta Paskual Tabernak tiratu zuten, Beñat Ordoki erakusle zutela. Aipatzekoa da Ander Mitxelenaren debuta, 15 urterekin bere lehen txapela jantzi baitu.

Emakumezkoetan, Elizondon berdindu egin zuten Txantreak eta Beti Gaztek, baina Arbuzun lesakarek tiraldi guztiak irabazi zituztela kontuan hartuz, Beti Gaztek jantzi zuen txapela, Txantrea eta Antsoainen aitzinetik.



Beti Gazteko gizasemeak eta emakumeak lehen txapelekin Elizondon. UTZITAKOIA

Beti Gazteko zortzikote txapeldunean, Amaia Leiza, Aitziber Goienetxe, Irantzu Goienetxe, Ane Gurrutxaga, Karmele Pikabea, Oihana Mingedia, Arritxu Muxika eta Maria Iantzi aritu ziren, Joxe

Angel Mitxelena erakusle zutela.

Hau irakurri orduko, emakumeen 480 kiloko eta txapelketa mistoko txapelak ere banatu izanen dira, Leitza eta Lesakako saioen ondotik.



Ezkerrean, Banesa San Juan eta Iñaki Ubiria, beraien kopilotoekin. Eskuinean, Garesko rallyko podioan, Zozaia eta Andueza garaile. UTZITAKO ARGAZKIAK



Iñaki Ubiria garaile Nafarroako lurreko rally txapelketan

Asfalto gainean, bi lasterketen faltan, lehia gogorra dute Beola-Iratzokik eta Zozaia-Anduezak

TTIPI-TTAPA

Nafarroako lur gaineko rally txapelketa Borjan egindako rallyarekin bukatu zen, urriaren 20an. Ordurako, Iñaki Ubiria lesakarrak eta Gorka Biain kopilotoak bazekiten txapelkun izanen zirela, baina

halere, txapelketako azken lasterketa ere irabazi zuten.

Izan ere, Iñaki Ubiriak bortz rallyetatik lau irabazi ditu eta 171 puntu pilatu ditu. Zehazki, Allon, Los Arcoseko Nafarroako Zirkuituan, Torresen eta Borjan irabazi du. Corellan

zazpigarren izan zen. Joan den urtean ere Nafarroako txapelkun izan zen Ubiria. Orduan, sei proba puntuagarrietatik bakarra irabazi zuen, baina erregularra izan zen bertze guztietan.

Banesa San Juan beratarra, berriz, laugarren izan da pilotoen sailkapenean, Ubiriaren, Gabriel Jimenezen eta Jose Manuel Gonzalezen gibelatik. Bere kopilotoa, Oskia Dominguez, hirugarren izan da eta Ford Focus Kopan 13. izan da, 26 ibilgailuen artean.

Lehia estua asfaltoan

Malerrekako eta Callaghango rallyen faltan, Garesen lortu-

tako garaipenari esker, Nafarroako asfalto gaineko rallyen pilotoen sailkapen buruan jarri da Iñaki Zozaia, 558 punturekin, eta bigarren da Joseba Beola etxalartarra, 555 punturekin. Kopilotoen artean, Joxelu Iratzoki igantziarra dago buruan 555 punturekin eta bigarren da Xabier Andueza lesakarra, 532 puntu eta erdirerkin. Aipatu bezala, Garesen garaile suertatu ziren Zozaia eta Andueza eta bigarren izan ziren Beola eta Iratzoki.

Formula libreak, kopilotoen artean bigarren da Miren Maia lesakarra (187,5 puntu) eta hirugarren Miguel Elizalde lesakarra (135 puntu).



UTZITAKO ARGAZKIA

Iker Vicentek lehen txapela jantzi du

Euskal Herriko 1. mailako aizkolarien txapelketa irabazi zuen lehen aldiz Iker Vicentek. Otsagikoaren ondotik, Larrañaga, Txikia IV.a, Eneko Otaño, Iñaki Azurmendi eta bere aurreneko finalean seigarren egin zuen Jon Rekondo leitzarria sailkatu ziren urriaren 27an Gasteizen.

Paxaka txapelketaren 20. edizioa asteburuan abiatu da bortz talderekin

TTIPI-TTAPA

Asteburu honetan abiatu da Baztan-Errekako paxaka txapelketaren hogeigarren edizioa. Bortz hirukotek eman dute izena eta partida guztiak Iruiritako Aranabia pilotalekuan jokatu dituzte.

Azaroaren 8tik abenduaren 8ra jokatu den lehen fasearen ondotik, lau onenek jokatuko dituzte finalerdiak abenduaren 13tik 15era eta final handia abenduaren 21ean jokatu dute, 18:00etan. Aitzinetik, hirugarren posturako partida jokatu dute.

Hauek dira hirukoteak: Oskar Urrutia, Egoitz Prim eta Miguel Angel Iñarrea; Xabi Barberena, Guillermo Etxenike eta Mikel Sagasetta; Mikel Mindegia, Manu Irigoien eta Joxe Mari Salaburu; Gorka Urtaşun, Juan Mari Maia eta Kaiet Itoitz; eta Ioritz Zelaieta, Aimar Saldias eta Iker Bereau. Partida bakoitzean hiru puntu banatuko dira: galtzaileak ez baditu sei joko lortzen, 3 puntuak irabazleak eskuratuko ditu. Galtzaileak sei joko edo gehiago lortzen baditu, irabazleak 2 puntu eta galtzaileak 1.

HITZALDIA

LESAKA

'Ferietan ere, zaindu zure burua' hitzaldia

13-16 urte bitarteko gazteentzat. Erabilera Anitzeko Aretoan, azaroaren 14an, 17:00etan.

ELIZONDO

'Euskara eta feminismoa genealogiatik egungo erronketara' hitzaldia

Saioa Iraola izanen da hizlari. Gaztetxean, azaroaren 15ean, 19:00etan.

'Mendiko suak: ingurua iraunkorki kudeatzeko tresna?' solasaldia

Arizkunenean, azaroaren 22an, 11:00etan.

GOIZUETA

'Azukrearen gazi-gozoak'

Azukrearen kontsumoa hizpide Eskolako jangelan, azaroaren 15ean, 19:00etan.

ZUBIETA-ITUREN

Inauteriei buruzko solasaldia

Azaroaren 23an, 17:00etan Iturenen eta 19:00etan Zubietan.

ETXALAR

Osasun-laguntza hizpide

Mari Jose Indaburu hizlari. Azaroaren 16an, 18:00etan.

DONEZTEBE

Euskaraldiaren aurkezpena

Mankomunitatearen egoitzan, azaroaren 21ean, 19:00etan.

IKUSKIZUNAK

GAZTELU-DONEZTEBE

'Irungo emakumeak plazara' dokumentala

Azaroaren 17an Gaztelu (16:00etan) eta 22an Donezteben (20:00etan).



ARTXIBOKOA

DONEZTEBE-LESACA-GOIZUETA Udazkeneko feria

Azienden bueltan, bertako produktuak, eskulangileen azoka... Azaroaren 15ean, 21ean eta 30ean, hurrenez hurren.

BERA

'Manifestu bat'

Behoko Larraine Taldea. Bidaxka ostatuan, azaroaren 17an, 18:00etan.

'Bakean dagoenari bakean utzi'

Idoia Torregarai eta Mirari Martiarena. Goxune kafetegian, azaroaren 24an, 18:00etan.

ELIZONDO

'Alu Ulu' antzerki-foroa

Arizkunenean, azaroaren 19an, 19:00etan. Azaroaren 20an DBHko 4.mailako ikasleentzat.

GOIZUETA

'Kartzela' serie digitala

Arnasa Gara egitasmoaren harira. Jangelan, azaroaren 23an, 19:00etan.

IRURITA

'Tomiris' antzezlana

Damaso Zabalza Gizarte Bilgunean, azaroaren 24an, 19:00etan.

KIROLA

LEITZA

Presoen aldeko mendi martxa

Gero, ekitaldia, bazkaria, poteoa eta kontzertua (Esne Beltza). Azaroaren 16an, 08:45ean plazatik abiatuta.

TAILERRAK

ETXALAR

Sukaldaritza ikastaroa

Iñaki Pikabearen eskutik. Ortziraletan, 18:30etik 20:30era arte.

GOIZUETA

Haurrentzako jolasak

Eskolako frontoian, azaroaren 16an, 16:30ean hasita.

LEKAROZ

Sukaldaritza tailerra

Belen Urrutiaren eskutik. Azaroaren 19an eta 26an, bi asteartez, 18:00etatik 20:00etara.

DONEZTEBE

Tabakoa uzteko tailerra

Osasun etxean, abenduaren 9ra arte, astelehenetan, 17:30etik 19:00etara.

MALERREKA

'Konta eta kanta' ipuin-kontaketa

Azaroaren 16an Elgorriagan (18:00), 17an Urrozen (frontoian 18:00etan), 22an Zubietan (18:00), 23an Iturenen (17:00etan), 24an Donezteben (Herrigunean, 11:30ean), 29an Saldiasen (18:00etan) eta 30ean Legasan (18:00etan).

ELIZONDO

Estresari eta antsietateari aurre egiteko tailerra

Osasun etxean, azaroaren 20an eta 27an, 10:00etatik 13:00etara.

KONTZERTUA

ELIZONDO

Artantzuriketari

Arizkunenean, azaroaren 17an, 19:00etan.

Elizondoko abesbatza

Elizan, azaroaren 24an, 13:00etan.

LESAKA

Santa Zezilia

Harriondoan, azaroaren 20an, 18:00etan.

SARA

Kantaldia

Lur Berri Gelan, azaroaren 23an, 17:00etan.

ZUBIETA

Piz&Lohi jaialdia

Eskualdeko musikariak: Joseba Irazoki, ZaKill, Kaskezur, Ozpinduk, Azken trena eta Sodade. Estalpean, azaroaren 30ean.



ARTXIBOKOA

ESKUALDEA Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Eguna

Azaroaren 25aren bueltan, dokumentalak, tailerrak, antzerki-foroak, elkarretaratzeak...

ERAKUSKETA

BERA
Aitziber Orkolagaren
'Plaketak' argazki-erakusketa

Labiaga ikastolan, abenduaren 29ra arte, astebururo, 16:00etatik 20:00etara.

ELIZONDO
Pintura-erakusketa

Torralba artistaren lanak ikusgai. Arizkunenean, azaroaren 24a arte.

OSPAKIZUNAK

SARA
Ongi Izaite Eguna

Haur eta helduentzat tailerrak egun osoan. Azaroaren 17an.

Santa Katarina besta

Mezaren ondotik, aperitifak eskainiko dute. Azaroaren 24an.

ELIZONDO
Santa Zezilia

Zahar-etxetik abiatuta, azaroaren 19an, 17:00etan.

DONEZTEBE
Bertso-afaria

Azaroaren 30ean.

FERIAK

DONEZTEBE
Feriak

Azaroaren 15ean.

LESAKA
Feriak

Azaroaren 20an eta 21ean.

LEITZA
Leitza eta Aresoko ekoizleen azoka

Leitzan, azaroaren 17an, goizez.

GOIZUETA
Azienda, artisauek eta nekazaritza feria

Azaroaren 30ean, 10:00etan hasita.

Nire aukera

«Azokan biltzen diren produktuak bertakoak eta osasungarriak dira»

GENO TELLETXEA ELIZALDE

«Areson bizi den zubietarra» da Geno Telletxea. Bizi erdia baino gehiago sorterritik kanpo daraman arren, herriarekiko lotura ez du eteten utzi: «orain dela 40 urte etorri nintzen Aresora eta hemen gustura bizi banaiz ere, zubietarra naiz». Herri batetik besterako aldaketa ez zen muturrekoa izan Telletxearentzat, baina Aresora joan zenean hasi zen baratzean eta azienda lanetan: «Zubietan koinatua eta aita zena aritzen ziren eta hurbiletik ikusia nuen. Ordura arte etxean ukuilurik ez nuen izan...». Dena dela, erraz egokitu zen eta, orain urte batzuk arte, «ardi eta behi dezente» izan dituzte, «gutzira 200 buru inguru». Gaur egun, «etxean



kontsumitzeko adina» izaten dituzte eta baratzean, «bertako eta garaiko produktuak» ekoizten dituzte: «letxugak, porruak, kalabazina, kalabaza, banabarrak, patata...». Orokorrean, etxean eta etxeakoentzat egiten dutela argitu arren, azaroan Leitza eta Aresoko ekoizleen azoka uzta plazaratzeko eguna izaten dute: «aresoarrak orain

bospasei urte hasi ginen produktuak eramaten, leitzarrek gonbidapena egin zigutenean, eta egia esan oso gustura joaten gara». Egun hori «berezia bezain polita» da Telletxearentzat eta sortzen den giroa, «Leitzan ostiralero egiten dituzten azoketan ez bezalakoa» da: «bertako jendea bertaraten da, baserritarrak gerturatzen dira, kanpotik jendea etortzen da... eta eramandako gehiena saltzen dugu». Salmentak jendeak baratzeako produktuei dien estimuaren lekuko dira eta horretan «banabarrak, eztiak, gaztak... badute arrakasta». Dagoeneko eraman beharrekoa prestatzen hasia da eta aurreratu digunez «aurten letxuga eta tomate gutxi ikusiko da, azelga, porru, kalabaza... dezente». Banabarrak ere, «asko eta asko» izan dituzte eta hori ez dute falta izanen. Produktuen kalitatea lehenesten dutenez, «etxeko ardi-ongarria besterik ez» dute erabiltzen baratzean. Hortaz, «ez dugu denetarik izaten, ateratzen dena ateratzearekin konforme gaude. Horiek osasungarriak izan daitezela eta kito». Eskaintza bikaina dakarte: bertan ekoizti, bertakoa erosi, osasuntsu bizi.


MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

ERRENTAN EMATEKO



BERA. 90 m²ko duplexa errentan emateko. Bi logela, bi bainugela, sukaldia, egongela eta garajea. Oso argitsua. ☎637 91 51 58 / 630 45 73 47.



ALMUÑECAR. Negua epela den tokian, bat edo bi laguntzako apartamentua errentan emateko. Hondartzako lehenbiziko lerroan, terrazarekin eta bista zoragarriekin. Klimatizatua eta ongi hornitua. Ur-tarrilean, otsailean eta martxoan errentan emateko. 1.600 euro guztira. ☎658 94 37 10.

LESAKA. Apartamentua errentan emateko edo salgai. Logela bat, komuna, trasteleku ttiki bat eta sukalde-egongela ditu. Berogailuarekin. Hagitz eroso. ☎628 04 20 47.

ERRENTAN HARTZEKO

BERAN edo INGURUAN pisua errentan hartu nahi dute, logela batekoa edo bikoa. ☎680 78 61 82.

BAZTAN. Lekaroztarrak pisua edo apartamentua errentan hartu nahi du. ☎659 30 83 84.

DONEZTEBE. Pertsona bat pisu bila. Epe luzerako. ☎600 64 34 60.

GARAJEAK/LOKALAK

SALGAI

BERA. Zurgindegia salgai, dena muntatua, makinariarekin. ☎648 26 56 63.



744 484 361

ttipi-ttapa

IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 www.erran.eus

☎ 744 48 43 61

@ info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta **ERRAN.EUS** webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan

Ttipi-Ttapak ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik

LURRAK/ORUBEAK

SALGAI

OIZ. 10.783,50 m²ko lurra salgai. Errepide ondoan. ☎628 31 60 81.

LANA

ESKAINTZAK

BERA. Auzoa jatetxean ethez etxe jatekoa eta edatekoa banatzeko banatzaileak behar dituzte. ☎657 47 20 20 (Whatsappez).

DONEZTEBE. Titi ostatuan sukaldian egun osoz aritzeko langilea behar da, esperientziarekin. ☎948 45 02 71.

BERA. Hortz klinika batean laguntzailea behar dute. ☎666 11 23 49.

ESKARIAK

Esperientziadun emakumea lan bila. Adinduak zaintzen eta garbiketan esperientzia duena. Orduka edo interna moduan aritzeko prest. ☎631 80 86 33.

Obratako lanetan eta pertsona adinduak zaintzen esperientzia duen gizonetako lan bila. Edozein lanetara egokitzeko prest. ☎632 73 25 42.

BERA edo LESAKA inguruan emakumezko bat lan bila. Etxeko lanetan, garbiketan edo adinekoak zaintzen aritzeko prest. ☎678 90 32 94 / 948 63 09 14.

Adinduak zaintzen esperientziadun emakumezko lan bila. Garbitasunean, zaintzan, ostalaritzan... lan egiteko prest. ☎631 20 24 80.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,14
- 1.koa 4,01
- 2.koa 3,87

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,25
- 1.koa 4,11
- 2.koa 3,97

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 170,00
- Idixkoak 200,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 150,00
- Idixkoak 170,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 3,32/3,42
- Zaldi-behorrak 1,93/2,10

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 8,30/8,90
- 8-10 kilokoak: 7,00/7,50

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 58 €
Zerri gizona 1,440 €
Zerramak 0,760€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua (urriaren 25etik azaroaren 1era bitarteko prezioak)

Garbitasunean urte aunitzez aritutakoa lan bila; edozein lanetara egokitzeko prest. ☎641 48 06 81.

Eraikuntzan eta adinduak zaintzen esperientzia duena, edozein arlotan lan egiteko prest. ☎632 72 51 39.

Sukaldari bezala eta adineko pertsonak zaintzen esperientzia duena edozein arlotan lan egiteko prest. **Ordutegi malgua.** ☎643 62 79 70.

Lanean esperientzia duen mutil gaztea lan bila, edozein lanetan aritzeko prest; zerbitzari moduan, adinduak zaintzen, eraikuntzan... ☎641 66 11 84.

ZERBITZUAK

ZURGINDEGIAK

ARANTZA
ZURGINDEGIA

Klase guzietako zurgin lanak
Eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandonea · ARANTZA
647 810 144 · 626 093 181

MOTORRAK

SALGAI



Dacia Logan Laureate, 1.6 MPI autoa salgai, 2005ekoa, motorra gasolina, 133.000 kilometro, IAT-ITV pasatu berria eta korrea, ur bomba, olio... aldatuak. Beti garajejan egondakoa. Jabe bakarrekoa. ☎687 83 28 44 / 617 80 46 51.



Peugeot 306 1.9 autoa salgai 191.000 km. Diesela 1.500 euro. ☎679 79 47 50.

DENETARIK

SALGAI

BH abdominalen taula, barra eta pesak eta mankuernak salgai. Hainbat posizio aukeran, bizepsak, abdominalak, koadrizepsak, sorbaldak,



SANTESTEBAN TAILERRAK

CLIO BERRIA HEMEN DUGU!

CLIO V ZEN TCE 100 CV - 14.100 euro
Extra guztiekin - Sus. finan. lotu.

Salgai ditugun kobxe guztiak gure webgunean ditugu ikusgai: www.talleressantesteban.com


DONEZTEBE - T. 948 450 282 - doneztebe@red.renault.es



GANIX
Tailerra

948 63 06 69

Zalain Pol., 11 . BERA
EUROMASTER zegoen lekuan



femorala... lantzeko. la erabili ga-beak. ☎600 67 04 95.

Arraun-makina estatikoa salgai, BH R350. 5 programa. Erabilera



Sampi Aragón

Volkswagen Caravelle Km0.
Prezioa: 24.600€. Finantzatutako prezioa



Volkswagen Touran 138.000km.
Prezioa: 13.900€. Finantzatutako prezioa



Ford Tourneo courier Km0.
Prezioa: 12.900€. Finantzatutako prezioa

DONEZTEBE | 948 450 354
administracion@arincar.com - www.arincar.com



erdi-profesionala. la erabili gabe. Erabiltzen ez delako salgai. ☎600 67 04 95.

IRAGARKIAK INTERNETEN

Sail honetako iragarkiak gure webgunean ere argitaratzen ditugu hilabete batez.

Ikusi iragarki guztiak Interneten:
<https://erran.eus/merkatu-ttikia>


Informazio gehiagorako: info@ttipi.eus
948 63 54 58 edo 744 48 43 61.

EZKONTZAK

- **Txomin Castera Conejo** eta **Sara Duke Albeniz** Burlatakoak, urriaren 26an Igantzin.
- **Ainara Salaberria Goizueta** eta **Vlad Dorian Morar** Goizuetakoak, azaroaren 2an Goizuetan.

SORTZEAK

- **Ane Erasun Etxeberria**, Doneztebekoa, urriaren 13an.



Sunbillako **Ixone Muñoz Arretxeak** azaroaren 1ean urtea bete du. Aunitz urtez familia eta bereziki, amaxi, atauxi eta Amaneren partetik. Muxuak prexioxa.




Izargi Mariezku-rrenak 3 urte beteko ditu azaroaren 19an. Zorionak printzesa! Muxu haundi bat June, Lide eta Haizederren partetik!



Zorionak **Naroa** azaroaren 20an 7 urte beteko dituzulako. Muxu potolo bat familiaren partetik.



Igantziko **Haizea Aranguren** 3 urte beteko ditu azaroaren 17an. Zorionak eta muxu potoloak bi amaxi, guraso eta Jonen partetik!



Nahia Gomez Ribeiro beratarak azaroaren 18an 7 urte beteko ditu. Zorionak amaxi, ataxi eta familiaren partetik.




Donamariako **Oinatzek** 3 urte beteko ditu azaroaren 25ean. Aunitz urte Egoi eta familiaren partetik! Zorionak bitxo!!



Goizuetako **Ireber Indakoetxea Mendizurik** 8 urte bete ditu azaroaren 7an. Zorionak gure ebeko erregeari lllargi, aita, ama, amona Pakita eta Hernani eta Usurbilgo familia guztiaren partetik. Asko maite zaitugu!



Aurtizko **Leiane Aitzuri Mindegia** ebeko sorgintxo haundiak azaroaren 22an 8 urte beteko ditu. Muxu haundi bat familia guztiaren partetik eta bereziki atta, ama, Naikari ahizpa eta Joritz anaiaren partetik. Berendu goxoa prestatu!!



Lesakako **Unax Zelaieta Urrizak** 2 urte bete ditu azaroaren 6an. Zorionak eta muxu haundi bat ebeko ttikiari ama, aita eta batez ere Hegoiren partetik.



Leitzako **Aratz Barandarin Aranaldek** zortzi urte beteko ditu azaroaren 23an. Zorionak! Ebeko mutikoa handitzen ari zaigula... Ongi ospatu eta hartu txokolate eta marrubizko muxu goxo bat! Ea argazkian jaten ari zarena bezain goxoa dagoen!

HERIOTZAK

- **Antoine Astigarraga**, Sarakoa, urriaren 14an, 85 urte zituela.
- **Marie Jeanne Telletxea**, Sarakoa, urriaren 22an, 95 urte zituela.
- **Francois Errandonea**, Sarakoa, urriaren 22an, 78 urte zituela.
- **M^a Jesus Alberro Arretxea**, Gartaingoa, urriaren 24an, 83 urte zituela.
- **M^a Dolores Egozkue Irazoki**, Berakoa, urriaren 24an, 77 urte zituela.
- **Fernanda Aldabe Telletxea**, Sunbillakoa, urriaren 27an, 91 urte zituela.
- **Antonio Elizalde Alsua**, Goizuetakoa, urriaren 27an 91 urte zituela.
- **Paula Extremera Rodriguez**, Leitzakoa, urriaren 28an, 70 urte zituela.
- **Rosalina Elizalde Irazabal**, Iturengoa, urriaren 29an, 88 urte zituela.
- **M^a Dolores Baleztena Hernandorena**, Eratsungoa, urriaren 31n, 86 urte zituela.
- **Candida Lasarte Telletxea**, Ezkurrakoa, azaroaren 1ean, 82 urte zituela.
- **Santiago Iparragirre Apezetxea**, Arantzakoa, azaroaren 3an, 72 urte zituela.
- **Pakito Eulate Antoñana**, Donamariakoa, azaroaren 4an, 81 urte zituela.
- **Mercedes Irasuegi Beloki**, Berakoa, azaroaren 4an, 97 urte zituela.
- **Teodora Zugarramurdi Iriberrri**, Elbetekoa, azaroaren 5ean, 93 urte zituela.

OROIGARRIA



*Penagarria lorategian
lore onena hiltzen dantian,
haizete baten zurrunbilok
eramaten du airian,
laino askoren artian
bidia aurkitu nahian
zerura joan zara agian
udazkeneko hega haizearen
dantzaldiaren menpian
bere hazia uzteko asmoz
belardi goxo batian.*

Zure familia Maria Isabel Irazoki Zubieta

OROIGARRIA



ROSALINA ELIZALDE IRAZABAL

Hostoak arboletatik erortzen diren bezala udazkeneko egun batean joan zinen *Amatxi*. Gogorra da onartzea gehiago ez zaitugula ikusiko baina bizitzen garen artean ez zaitugu ahaztuko.

ZURE ILOBAK - BIRBILOBAK



BEILATOKIAK
ELIZONDON, BERAN ETA DONEZTEBEN

Zerbitzuak Baztanen, Bortzirietan,
Bertizaranan eta Malerrekan

Hurbiltasuna eta begirunea

HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUI, A TU LADO

T. 948 05 90 90 www.izarratanatorio.com



BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: BERAN San Jose Beilatokian
MALERREKA: DONEZTEBEN Aparan ind. 1-3

web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | **948 48 95 50**
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeka

ESKELAK JARTZEKO edo OROIGARRIAK EGITEKO:
948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

- **Eskelak, Esker Onak** eta **Urteurrenak**
Ttipi-Ttapa aldirian + ERRAN.EUSen: 90 €
Ttipi Txartela dutenek %10eko deskontua.
- **Oroigarriak** egiten ditugu, pertsonalizatuak, nahi den argazki eta testuekin prestatuak. Ikusi ereduak gure bulegoan, (Koskontako bidea, 7-1 · 31770 LESAKA).



IRACHE
tanatorioak
Betidanik

BERA (Kanttonberri, 14) | DONEZTEBE (Amezti, 13)
ELIZONDO (Santiago, 52) | LESAKA (Zarandia, 18)

ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

 **948 63 74 04 / 948 19 70 70**

KONTATU KONTUAK



Gau Beltza ospatu dute. Kalabazak hustu, kandelak piztu, mozorroak jantzi... Euskal Herriko bertze txokoetan bezala, eskualdean ere hainbat izan ziren urriaren 31n Gau Beltza ospatu zutenak. Argazkian Arraiozko eta Iturengo haurrak ageri dira mozorrotuta.



Sanmartinak gogoan Berroetan. Iraganeko San Martin bestak oroituz, 50 bat lagunek afaria egin zuten azaroaren 2an Berroetan. Akordeoiaren doinuekin dantzan eta kantuz pasatu zuten gaba.



Baztan ONCEko kupoietan. Azaroaren 21eko ONCEren kupoia Baztango paisaiek koloreztatuko dute. Hala adierazi zuten azaroaren 4an Joseba Otondo alkateak eta ONCEko Valentin Fortunek.



Dolores Goienetxe eta Fermina Mikelestorena gogoan. Sortzez etxalartarrak diren baina Gipuzkoan bizi diren Dolores Goienetxe eta Fermina Mikelestorenak 93 eta 95 urte beteko dituzte laster. Haiek gogoan, Markos Negueruelak 1949an Goienetxe-Larralde familiari ateratako argazkia ekarri du gogora. Zutik Maria Lizarreta, Asuntzion Goienetxe, Inazio Elgarresta, Fermina Mikelestorena, Maria Goienetxe, Maria Lizarralde, Lutxi Goienetxe, Marzelina Larralde, Mañula Goienetxe, Emilio Negueruela, Benita lurrebaso, Xidoro Mikelestorena, M^a Dolores Goienetxe, Pedro lurrebaso, Ramon lurrebaso, Periko Mendia, Asuntzion Arburua, Jose M^a lurrebaso eta Manuel Larralde eta Kontxita Larralde ageri dira; beheitian, Inazio Goienetxe, Inazio Indaburu, Xeberino Larralde, Martin Indaburu, Korito Mendia, Bittoriano Goienetxe, M^a Luisa Larralde, Isabel Arburua, Txomin Elgarresta eta Frantzixku Goienetxe.



80 eta 70 kiloko kalabazak Leitzan. Nahikoa lan izan du Gregorio Oiartzun leitzarrak baratzetik uzta biltzeko. 80 eta 70 kiloko kalabaza bana jaso du Leitzako Landako baratzean. Ez dakigu kalabazak hustu eta arimen gaua ospatzeko erabili ote zituen, jateko prestatu edo hala bazan edo ez bazan.... Leitzako haurren ipuinak gordeko dituzten barrenean. Gregorio bera ere kabitzen da halako aleen barrenean!

PLAZAN BAZAN



PAREAK BAI!

Hemengo elementu gehienak bikoiztuta daude. Batek, ordea, ez du parearik, eta beste bat hiru aldiz ageri da. Zein da bakana eta zein hirukoiztua?




BAKANA.....

HIRUKOIZTUA.....



Egilea: Garbine Ubeda (Aiturri)

Zortzi dado hauek tranpati samarrak dira. Lau besterik ez datoz bat irudi zabalduarekin. Zeintzuk dira? Horrela asmatzea zaila baldin bazaizu, irudi zabaldua paper batean marraztu eta dadoa muntatu. Berehala konturatuko zara zeintzuk diren txarrak eta zeintzuk onak.



ITZALA

Ikusten duzunez, Pelloziri eskolako lanak egiten ari da eta ez dago pozik. Baina hori alde batera utzita, zein ote da bere itzal zuzena?



HAU DA HAU!

Hona hemen Maripurtzilen hatz erakuslea. Marraz ezazu zerbait, bere hatz puntan orekan, eta izan dadila ikusgarria, sekulako trebezia baitauzka.



INTERNETEN ERE BAI!

<http://plazanbazan.eus/>



Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak

BOTA DADOA!



Ttipi Txartela rekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK
-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 LESAKA
T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57
info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

745

aleko irabazleak >



ZOZKETAK

2 sarrera

BAZTAN AVENTURA PARK
ELIZONDO

BKZ AVENTURA
www.navarraaventura.com

2 sarrera

ZUGARRAMURDIKO LEZEA
SARRERA

ZUGARRAMURDIKO LEZEA
www.turismozugarramurdi.com

2 sarrera

AQUARIUM EUSKADI
DONOSTIA / SAN SEBASTIAN

DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA
www.eurekamuseoa.es

Eureka! Museoa+Planetaria
Eureka! Museoa+Planetaria

2 sarrera helduentzat

BUATXABAL
www.buatxabal.com

buatxabal
BUATXABAL
Basque Clothing Co

Kamiseta bat

MARTIKO
www.martiko.com

MARTIKO

Lote bat

LIBURUAK



- Katalin eta nebatxoa
- Katalin etxe berrira doa
- Txomin komunean

ibaizabal
www.ibaizabal.com

LA GUN TZAI LEAK

MAUKA
MUSIKAGINTZA

www.maukamusik.com

AQUARIUM
DONOSTIA / SAN SEBASTIAN

www.aquariumss.com